

LAURO IKASTOLAKO KONTINGENTZIA PLANA 2020-2021

Azken eguneraketa: 2020/10/2

1. SARRERA

2. HAUR HEZKUNTZAKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

- 2.1. MASKARAREN ERABILERA**
- 2.2. JARRAIBIDE OROKORRAK**
- 2.3. SARRERA ETA IRTEERA**
- 2.4. GELEN KUDEAKETA**
- 2.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA**
- 2.6. PATIOEN ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA**
- 2.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA**
- 2.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA**
- 2.9. JANTOKIA**
- 2.10. LOGELA**
- 2.11. GARRAIOA**

3. LEHEN HEZKUNTZAKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

- 3.1. MASKARAREN ERABILERA**
- 3.2. JARRAIBIDE OROKORRAK**
- 3.3. SARRERA ETA IRTEERA**
- 3.4. GELEN KUDEAKETA**
- 3.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA**
- 3.6. PATIOEN ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA**
- 3.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA**
- 3.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA**
- 3.9. JANTOKIA**
- 3.10. GARRAIOA**

4. DBH-KO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

- 4.1. MASKARAREN ERABILERA**
- 4.2. JARRAIBIDE OROKORRAK**
- 4.3. IKASLEEN SARRERA ETA IRTEERA**
- 4.4. GELEN KUDEAKETA**
- 4.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA**
- 4.6. PATIOEN ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA**

- 4.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA**
- 4.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA**
- 4.9. JANTOKIA**
- 4.10. GARRAIOA**

- 5. BATXILERGOKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK**
 - 5.1. MASKARAREN ERABILERA**
 - 5.2. JARRAIBIDE OROKORRAK**
 - 5.3. IKASLEEN SARRERA ETA IRTEERA**
 - 5.4. GELEN KUDEAKETA**
 - 5.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA**
 - 5.6. JANTOKIA ETA JOLASTOKIETAKO KUDEAKETA**
 - 5.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA**
 - 5.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA**
 - 5.9. GARRAIOA**

- 6. ESKOLA KANPOKO EKINTZEN ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK**
 - 6.1. MASKARAREN ERABILERA**
 - 6.2. JARRAIBIDE OROKORRAK**
 - 6.3. SARRERA ETA IRTEERA**
 - 6.4. SAION KUDEAKETA**
 - 6.5. ALDAGELEN ERABILERA**
 - 6.6. ENTRENAMENDUEN KUDEAKETA**
 - 6.7. GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA**
 - 6.8. GARRAIOA**

1. SARRERA: LAURO IKASTOLAKO TESTUINGURUA

Une honetan 2020-2021 ikasturtea garatuko den modua jakinezina da, Covid-19 pandemiaren eboluzioari buruz daukagun ezjakintasuna dela eta. Horregatik, eman daitezkeen osasun egoeren arabera egokitu beharko garen eszenatoki desberdinak aurreikustea ezinbestekoa da.

Lauro Ikastolarentzat aurkezten dugun plan honetan hiru egoera posible desberdin aztertu ditugu, gure Ikastolako antolaketa sistemak gertatu daitezkeen errealitate desberdin eta hipotetiko horiei egokitzeko ahalmena ematen digularik.

Planaren abiapuntuak

Gure planaren helburu nagusiak dira:

- Ikastolako ikasleen eta langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea. Gaixotzeak ekiditea eta ikastetxean gertatu daitezkeen kasuak ahalik eta arinen detektatu eta isolatzea.
- Ikasleen gurasoen familia-bizitza eta lanaren arteko kontziliazio ahalik eta handiena lortzea, bereziki Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapetan, krisialdi momentuetan ere.

Gaixotasunaren kontrolerako funtsezko bi aspektu hartu behar ditugu kontuan:

- Espazioen eta pertsonen joan-etorrien antolaketa.
- Neurri higienikoak.

Aurreikusten diren egoerak

Aurreikusten ditugun hiru egoerak dira:

- a) **“Normaltasun berri hobetua”**. Egoera honetan irakaskuntza jarduera presentziala bermatzen da etapa eta maila guztietan.

Ikastolak eraikin bat du etapa bakoitzeko. Beraz, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko etapako hezkuntza prozesua eraikin desberdindu batean gauzatzen da. Eraikin bakoitzak kanpoalde handia du eta, beraz, etapa bateko ikasleek eta irakasleek ez dute beste etapetako ikasleekin eta irakasleekin kontakturik izango.

Ikastolak kanpoko espazio zabala eta berdea du, etapa bakoitzak bere jolastoki eremu propioak ditu eta, beharrianen arabera, eskolak kanpoaldean ematea ahalbidetzen digu. Hau etapa guztietan horrela dela bermatu dezakegu.

“Normaltasun berri hobetu” honetan, etapa eta maila bakoitzeko talde bakoitzak gela finko bat izango du, eta gela barruan ikasle ikaslera 1,5 m-ko distantzia alboetara dagoela bermatuta dago.

Horrez gain, gure Proiektuaren analisi sakon bat egin ondoren, eta gure baliabide propioak berrantolatuz, Haur Hezkuntzatik hasita eta Lehen Hezkuntzako 4. mailara arte, ikasle talde bakoitzean dagoen ikasle kopurua murriztu dugu, eraikin bakoitzean eta maila bakoitzean aldaketa txikiak eginez. Orain arte maila horietako bakoitzean bost ikasle-talde izan ditugu, baina “normaltasun berri hobetua”ren kontzeptuaren barnean, 2020-2021 ikasturtean goian aipatutako mailetan sei talde izatera igaro gara, talde bakoitzean ikasle kopurua %20an jaitsiz. Modu honetara, etapa eta maila horietako ikasle eta irakasleen segurtasun eta osasun egoera hobetuko dugu.

b) **Egoera mistoa**, Koronabirus agerraldi (brote) batek sortutakoa, non ikasleagoa atenditzeko modu desberdinak aurreikusten diren, ikaslearen etapa eta mailaren arabera, edota egoerak eskatuta irakaskuntza jarduera modu presentzial eta ez presentzialean indartu beharko den.

c) **Ikastolaren itxiera** osoaren egoera (etxeko itxialdia).

Pandemiaren garapenaren arabera, osasun agintariek beste jarraibide batzuk emango balituzte, Kontingentzia Plan hau eszenatoki berrira egokitu eta berdefinitu beharko litzateke.

Ikastolako hezkuntza komunitatearen erantzunkidetasuna eta informazioa

Helburu honekin:

- Ikastolak bere langileei informazioa eman eta prebentzio eta higiene neurriei buruzko baliabideak bereganatzea erraztuko du, honek ikastolako beste interes taldeei ere komunikazioa egitea erraztuko duena.
- Familia guztiei informazioa bidaliko zaie eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko kanal bat mantendu da.
- Prebentzio eta higiene neurrien ulermena eta betetzea erraztuko duten infografia, kartelen eta zeinuen erabilera bultzatuko da. Informazio hau osasun agintariek markatzen dituzten irizpideen arabera eguneraturik egotea zainduko da.

Sektore blokeagarrien sistema

Espazioen antolaketa eta pertsonen joan-etorriari dagokionez, gure plana sektore blokeagarrien sistema baten oinarritua egiten saiatu gara, zorrotzena den egoeran bloke horien artean komunikaziorik ez delarik egongo. Sektore horien arteko harremana handitzen joan daiteke egoera epidemiologikoaren arabera.

Sektore bakoitza enplegatu eta ikasle eta espazio konkretu batzuez osatuta dago, eta blokeoa sektoreen arteko permeabilidadearekin harremanduta egongo da. Permeabilidadea sektore batetik bestera egiten den pertsonen mugimendu edota elkartrukea da, edo espazio amankomunen erabilera.

Hasiera batean, Ikastolako etapa guztietan sektore blokeagarria izango da etapa horretako maila zehatz bateko talde bakoitza. Esate baterako, LHko 4. mailako A taldea sektore blokeagarria izango da, eta B taldea beste sektore blokeagarri ezberdina.

Sektore blokeagarri honekin bilatzen duguna da pertsonak eta hauek erabiltzen dituzten espazioak zonifikatzea. Horrela, sektore batean agerraldi (brote) bat agertuz gero, sektore hori isolatuko litzateke, pertsonak berrogeialdian jarritz, bitartean gainontzeko sektoreek bijilantzia eta alerta sistema estu batekin funtzionamenduan jarraituko dutelarik.

Eraikin bakoitzaren barnean pertsonen joan-etorriak eta gelen aldaketak minimizatzen saiatuko gara, eta pertsonak ez dira sektorez aldatuko oso momentu puntualetan izan ezik, adibidez, espezialisten arreta jaso behar badute.

Gela batetik bestera doazen irakasleak kontaminazio bektoreak dira, birusa sektoreetatik hedatu dezaketenak, horregatik irakasleek eraikin bakoitzaren barnean egiten dituzten desplazamenduak minimizatzen saiatuko gara.

Ikastolak eraikin desberdinak ditu, bat etapa bakoitzeko. Hortaz, Haur Hezkuntzako eraikina Lehen Hezkuntzako eraikinetik urrun dago, eta eraikin guztiak kanpoalde handi, berde eta bereiztuetaz inguratuta daude. Zirkunstantzia honek suposatzen du ez dela etapa bat eta beste etapen arteko kontakturik egongo. Unitate isolatuen moduan funtzionatzen dugu (lau ikastola desberdin izango bagina bezala), beraz ezaugarri honek brote baten aurrean ikastola osoa itxi behar ez izatearen abantaila ematen digu.

Sektoreak blokeatzen direnean ezin da egon ikasleen elkartrukea sektore batetik bestera. Irakasleen fluxua blokeen artean dagoen blokeo mailaren arabera izango da, eta beti jarraibideak eta neurri higienikoak kontu handiz eramanez.

2. HAUR HEZKUNTZAKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

2.1. MASKARAREN ERABILERA

- ✓ Ikasleek autobusetan maskara erabiliko dute. Kotxez datozen ikasleak, maskara jantziko dute autotik jaistean eta gelarako bidean.
- ✓ Gela barruan eta jolastokian ez dute maskararik erabiliko.
- ✓ Ikasleek jantzita ekartzen duten maskaraz gain, motxilan beste bat ekarri behar dute.

2.2. JARRAIBIDE OROKORRAK

- ✓ Ikasleak 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasunak, usaimenik edo dastamenik ez izatea ... susmatuz gero ezingo da ikastolara etorri, etxean gelditu eta osasun-zentrorra deitu beharko da. Kasu honetan, familiak, tutorea jakinaren gainean jarri beharko du. Senitartekoren batek ere sintomak izanez gero, umea ez da Ikastolara etorriko eta osasun zentroarekin jarriko dira kontaktuan.
- ✓ Familiak ikaslearen emaitza positiboa jakiten duenean, Ikastolan informatu behar du lehenbailehen etapako zuzendari (goikoetxeas@lauro.eus), erizainari (elorduir@lauro.eus) eta tutoreari e-posta bidaliz.
- ✓ Gaixotasunaren sintomarik ikastolako ordutegian antzemanez gero, seme-alaba jasotzea eskatuko zaio familiari. Familiak osasun-zentrorra deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- ✓ Haur edo langileren batek COVID-19n positibo emanez gero, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta handik kanpo, kontaktuak identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez, Osasun Publikoko Zuzendaritzak ezarritakoaren arabera.
- ✓ Amantala etxetik jantzita ekarri beharko dute egunero eta jantzita itzuliko dira, egunero garbitu behar direlako. Ikasleko hiru amantal izatea gomendatzen da.
- ✓ Ura edateko, ikasle bakoitzak ikastolara bere ur botila propioa ekarriko du izen-deiturarekin identifikaturik. Botila hau, berrerabilgarria izatea gomendatzen da. Egunero eramango dituzte botilak etxera, garbitu ahal izateko.
- ✓ Lotaldia, 3 urteko ikasleen kasuan: momentuz ez dute izararik erabiliko eta koltxoiak egunero desinfektatuko dira.
- ✓ Eskuak garbitzea: Ikastolara heltzean, doministiku edo zintz egitean, espazioa edo jarduera aldatzean, jan aurretik eta ondoren, komunera joan ondoren eta, betiere, zikinkeria ikus daitekeenean. Ura eta xaboiarekin egitea lehenestuko da eta, posible ez denean, gel hidroalkoholikoarekin.

2.3. SARRERA ETA IRTEERA

Goizeko sarrera:

- Autoz datozenen kasuan, ohiko ordutegiak jarraituz, ikaslea eraikinaren kanpoaldean entregatu beharko zaio ikastolako arduradunetako bati. Gurasoak ezin izango dira eraikinean sartu. Ikasleek maskara jantzita izan behar dute, gelara heldu arte.
- Ikasleak autobusetatik jaisterakoan adinaren arabera banatuko ditugu. Horretarako adin bakoitzak gune bat zehaztuta izango du. Gune horretara joateko, adierazita izango duten ibilbideari jarraitu beharko diote.
 - 3 urtekoak jantokian egongo dira. Talde bakoitzari gune zehatz bat egokituko zaio lurrian ikur bat ezarritik, eremu barruan babes neurriak mantenduz.
 - 4 urtekoak goiko aterpean kokatuko dira, bakoitza dagokion lerroan.
 - 5 urtekoak frontoian izango dute haien gunea, bakoitza dagokion lerroan kokatuko delarik.

Hiru kasuetan, tutorea jaitsiko da bere ikasleak jasotzera. Lerroan daudela, tutore bakoitzak ikasleen banakako garbitasuna bermatuko du. Horretarako, bakoitzari, gel hidroalkoholiko dosia banatuko dio.

Tutore eta arduradunen artean, goizean ikasleei tenperatura hartuko diete eta 37 graduak gaindituz gero, umea aparteko gune isolatu batera eramango da eta familia abisatuko da umearen bila etor dadin.


Lehenengo, taldeka, 5 urtekoak igoko dira haien geletara. Behin bost urtekoak igo direnean, 4 urtekoak hasiko dira igotzen, txandak errespetatuz. Hauek amaitzerakoan, 3 urtekoak igoko dira.

Irteera:

Tutore bakoitzak bere gelako ikasle guztiak autobusetara eramango ditu maskara jantzita eta bakoitzak dagokion autobusa hartzen duela bermatuko du.

Autoz doazenen kasuan, berriz, autobusetako ilara berean eramango ditu tutoreak, baina bukaeran. Autobusetako ikasle guztiak banatu ondoren, tutoreak autoz doazenak frontoira eramango ditu eta bertan, dagokion familiarekin utziko ditu.

Autoz bila etorri diren gurasoak eta batutako ikasleak ez dira Ikastolako instalazioetan geratuko, jolastokiak eskola-erabilerarako espazioak baitira.



Ikaslea ordutegitik kanpo sartu edo atera beharko balitz, gurasoek txirrina jo eta sarreran itxaron beharko dute, ezingo baitira eraikinean sartu.

2.4. GELEN KUDEAKETA

Talde bakoitzak bere gelako espazioa erabiliko du eguneroko eginkizunetarako eta bertan mantenduko dira beraien taldetik at dauden ikasleekin harremanak ekiditeko.


Gelen taldeen diseinua, maila guztietan autobusaren ibilbideen / bizilekuaren arabera egin dira, talde egonkorak autobusetatik hasteko.

2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, hezkuntza-jarduerak hiru egoera izan ditzake. Betiere, 2019-2020 ikasturte hasieran aurreko ikasturtean eskasago ibili diren ikasleentzako indartze neurriak planteatuko dira. Ikasleek beraien ikasketa prozesuaren erritmoa berreskuratzeko lan egin beharko dugu, sortu zaizkien egoera emozional desorekatuak bideratu eta ikasle zein familiei behar dutena eskainiz. Horretarako aurreko ikasturteko eduki guztien errepasoa egingo da, zailtasunak ikusiz gero beharrezko denbora emango zaielarik. Heziketa emozionalari dagokionez, arreta eta denbora gehiago eskainiko zaio, bai bizi izan dugun egoeraren ondorioak aztertu eta baita egunerokoan sortzen direnak landuz.


Ondoko edozein agertokiak, irakasleen eta familien arteko koordinazio estua eskatzen du.

1. Agertokia: normaltasun berri hobetua

Ikastolako "normaltasun berri hobetu"aren arabera, maila bakoitzean bost talde izatetik sei talde izatera igaro gara, 20-21 ikasle inguruko taldeak izan eta arriskuak ekiditeko. Hau da, geletako ume kopurua murriztu da eta espazioen berrantolaketa egin hezkuntza-jarduera presentzialaren garapena sei geletan burutzeko ahalbidetu ahal izateko.



3 URTE ETA 4 URTE



5 URTE

Egoerak taldeen berrantolaketa bat ere eskatzen du, EJKo Osasun Sailaren segurtasun eta higiene neurriak ahalik eta ondoen betetzeko. Era honetan, taldeketa berriak egiteko orduan, autobus/bizitokia izan da irizpiderik garrantzitsuena, autobustean, gelatan, jantokian eta logelan, ikasleak talde egonkorretan mantenduz.

Ikasle eta irakasleen joan-etorriak murrizteko, bikoizketak saihestuko dira.

Orientazio zerbitzuari dagokionez, aholkulari laguntzailea ez da gelaz-gela ibiliko, orain arte moduan. Irakasleak zalantza bat eta kasu bat izanez gero, hitzordu hartuko du aholkulari laguntzailearekin eta bien artean erabakiko dute zein den biderik aproposena ikasleari eta familiari laguntza eskaini ahal izateko.

Hasierako egunetan, igeriketa (4 eta 5 urteko ikasleek) saioen ordean, heziketa fisiko saioak antolatuko dira, kanpoko espazioetan. Igerilekua martxan jarriko balitz, igeriketa kiroldegiko aldagelak erabili barik gauzatu da igerilekuko edukiera errespetatuz, eta dagokion jarraibideak helaraziko genituzke.

Lehen agertokian, ikasleren batek berrogeialdia bete behar badu edota Covid-19arekin gaixorik badago, tutoreak ikaslearen bakarkako jarraipena egingo du, lanak agindu, etab. Egoera honetan talde osoa egongo balitz, tutoreak egunero 3 bideokonferentzia egingo ditu: bat azalpenak emateko, bigarrena zalantzak argitzeko eta hirugarrena lanen jarraipena egiteko.

2. Agertokia: koronabirus agerraldia

Gure etapan, ikasleak autonomia txikiagoa dutela kontuan harturik, aurrez aurreko ikaskuntza lehenetsiko da.

Kasu honetan, lehen egoeran aipatutako antolaketarekin jarraituko genuke, baina arrazoi desberdinengatik / gaixotasunaren agerraldiagatik talde baten edo gehiagoren konfinamendua suertatuko balitz, talde horiek ikasketa ez presentziala burutuko lukete. Gelen antolaketa autobusa/bizitokiaren arabera egin izanak, konfinatu beharreko talde horiek errazago identifikatu eta kudeatzea suposatzen du.

3. Agertokia: Ikastolaren itxialdia.

Honek, itxialdia eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko luke, baina hezkuntza-jarduerak ez du etenik izango. Eguneroko lana jasotzeaz gain, ikasleak telematikoki konektatzeko ordutegi batzuk ezarriko dira hezkuntza-jardueraren erritmoa eta jarraipenari eutsiz. Hau da, 2019-20 ikasturteko konfinamendu egoerarako planifikatutakoa martxan jarriko litzateke, pertsonal dozentearekin ikasturte amaieran izandako bileretan eta familiei egindako galdekizunetan jasotako iradokizunak eta hobekuntzak gehituz.

On-line edo irakaskuntza ez presentziala egin behar dela kontuan izanik, inplikaturako hezkuntza-profesional bakoitzak egin beharreko zereginak zehaztu behar dira, bai banakako lan plana, bai curriculumak aberastea, egokitzen esanguratsuak egin edo curriculumak zabaltzea landu ondoren. Bestalde, tutore ez diren eta beraien ordutegia on-line eskola saioekin osatzen ez duten langile guztien ordutegien berrantolaketa bat egingo da irakasle-tutoreekin lankidetzan jardun dezaten.

Agertoki honetan, eskolako irakasleek ondokoak erregistratu beharko dituzte: egunero planifikatutako atazak, gauzatu direnak, ordutegia eta eskaini den irakaskuntzari buruzko informazioa.

Kasu eta egoera guztietarako gogoan hartu behar da 2019-2020 ikasturteko azken hiru hilabeteko jardun bereziaren ondorioz ikasleak maila eta egoera ezberdinetan egongo direla, eta lehenengo gauza egoeraren diagnostiko edo hasierako ebaluazio bat egin beharko dugula.

HHko irakaskuntza ez presentzialaren ardatzak:

- ✓ EDUKIAK ETA LANAK KUDEATZEKO SAIO BIRTUALAK 2 SISTEMA ERABILIZ:
 - o *Bideokonferentziak.* Egunero tutorearekin saio bat talde handian eta asteen bi edo hiru, adinaren arabera, talde txiki bakoitzarekin, bat tutorearekin eta bestea irakasle espezifikoekin (euskara eta ingelesa).
 - Errutinak lantzeko
 - Edukiak azaltzeko
 - Talde txikian ekintza ezberdinak aurrera eramateko.
 - Euskara indartzeko jarduerak aurrera eramateko

- Mintzamena lantzeko
- o *Bideotutorialak*. Egunean bat gutxienez, edukiak edo ekintzak azaltzeko.
- ✓ EGUNEROKO LANAK ETA EDUKIEN GARAPENERAKO BALIABIDEAK:
 - o Eguneroko lanak eta ikas-irakaskuntza prozesuarekin aurrera jarraitzeko baliabideak e-postaz jasoko dituzte: fitxak, errutinak lantzeko bideo-tutorialak, ekintzen azalpen bideoak, bideokonferentziak, abestiak, ipuinak ...
 - o Edukien garapenerako erabiliko diren baliabideak:
 - HHko site-a
 - Baliabide asinkronoak: e-posta, drive...
 - Baliabide sinkronoak: Meet
- ✓ ANIZTASUNAREN TRATAERA:
 - o Etapako orientatzaileak, bideratuta dauden edo irakasleak kezka adierazi dien ikasleen jarraipena egingo du eta behar izanez gero materiala eta baliabideak prestatu eta eskainiko dizkie.
 - o PT eta laguntza espezifikoak duten ikasleek, banakako saioak jasoko dituzte, dagokion ordu kopurua kontuan harturik. Horrez gain, behar izanez gero materiala eta baliabideak helaraziko zaizkie.
- ✓ KOMUNIKAZIOA FAMILIEKIN:
 - o Alexia: zirkularrak, orientazio artikulak, ikasleen jarraipena
 - o E- posta: egunero lantzeko ekintza eta baliabideak, tutorearen jarraipena

2.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

Eraikin barruan leku batetik bestera mugitzeko, pasabideetan ezarrita dauden norabideak errespetatu behar dira, multzoak ekidinez eta baita besteekiko kontaktua ere.


Gurasoak edota senitartekoak ez dira eraikinean sartuko. Arrazoi bereziengatik orduz kanpo etorriz gero, sarrerako txirrina joko dute eta atendituak izango dira.

2.6. JOLASTOKI ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA

- ✓ Ikasleek ez dute etxetik jostailu edota baloirik ekarriko.
- ✓ Erdiko atea erabiliko da geletatik patiora edo kalera irteteko, eta jantokiko atea, berriz, patiotik eraikin barrura sartzeko. Lerroan daudela, leku aldaketa hauek egiteko, tutore bakoitzak ikaslearen banakako

garbitasuna bermatuko du, horretarako ura eta xaboiarekin garbituz edo gel hidroalkoholiko dosia emango diolarik.

- ✓ Patioa sei gune desberdinetan banatuta egongo da. Talde bakoitzak egunero espazio zehatz bat erabiliko du eta asteko egun bakoitzean gune desberdin batean egongo da, eta ikasleak kolorezko petoekin identifikatuta egongo dira espazioak hobeto kudeatzeko. Peto hauek astero etxera eramango dituzte garbitzeko.



- ✓ Euria eginez gero, aterpe guneak baino ez ditugu erabiliko, eremuetan banatuta, talde guztiak bereizita egongo direla bermatuz.



- ✓ Psikomotrizitatea gelara joateko lerroan daudela, tutore bakoitzak ikaslearen banakako esku-garbiketa bermatuko du. Behin saioa amaituta, tutoreak erabilitako materiala garbituko du.
- ✓ Goizeko jolastordutik bueltatzeko erabilitako eredua jarraituko dute, eguerdiko patiotik geletara bueltatzeko unean ere.

2.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

- ✓ Geletako komunetan manparak jarri dira, gela bakoitzak komun propioa izango duelarik.

- ✓ Lotaldia egiteko prestatu diren eremuetan badago komuna ere.
- ✓ Komunen garbiketa bermatuko da.

2.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA


- ✓ Irakasle bakoitza bere gelako material guztiaren garbiketaz arduratuko da.
- ✓ Komunak hiru aldiz garbitu eta desinfektatuko ditu garbiketako arduradunak egun bakoitzeko jardunaldian, patiora joaten diren bakoitzean edo jarduera amaitzen denean. Aldi bakoitzean, jasoko da egin izanaren frogagiria.
- ✓ Patioko eremu desberdinak, erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira.
- ✓ Gelak aireztatzea: gelak etengabe aireztatuta egongo dira, eguraldiaren arabera. Posible ez denean, une ezberdinetan egingo da jantokira joatean, jolastokietara joatean, jarduna amaitzean, etab.

2.9. JANTOKIA

Jantokiko antolaketaarako, prebentzio neurri zorrotzak antolatu izan dira ikasturte hasieratik, ondoren azalduko denez. Irailaren 23an Eusko Jaurlaritzak bidalitako eskola-jantokien inguruko prebentzio neurriak aztertuta, Ikastolakoak horiek bete ezezik, gainetik daudela ikusi dezakegu.


Eusko Jaurlaritzak talde egonkorak jarraien jesarri daiteke eta tarteak bakarrik mantendu behar dira talde egonkorren artean eta ez ikasleen artean.

- ✓ Gelatik jantokira joateko ere, lerroan daudela, tutore bakoitzak ikaslearen banakako esku-garbiketa bermatuko du.
- ✓ Jantokian, mahaien kokapena aldatu da.
- ✓ Mahaietan manparak jarri dira bai aurrez aurre eta baita alboetan ere "gelaxka" bat osotuz.
- ✓ Ikasle bakoitzak leku / gelaxka finkoa izango du egunero bazkaltzeko.
- ✓ Ikasle-talde bakoitzak jantokiko zaintzaile bat izango du, taldeen arteko nahasketarik egon ez dadin.
- ✓ Jantokira zerrendaren arabera, txandaka eta beste taldeekiko distantziak zainduz jaitziko dira ibilbideak errespetatuz. Bertaratzean ikasle bakoitza bere lekuan jesarriko da.



Kokapenaren eskema eta ikasle bakoitzaren lekua

- ✓ Bazkaltzen amaitzen dutenean, 3 urteko ikasleen kasuan, taldeka eta ordenean lotaldirako prestatu diren eremuetara igoko dira, dagokion zaintzailearekin. Eremu hauetako sarreran, ikaslearen banakako garbitasuna bermatuko da, ikasleak logelan sartu aurretik eskuak garbitzen dituela ziurtatuz.
- ✓ 4 eta 5 urteko ikasleen kasuan, bazkaltzen amaitzen dutenean, taldeka, ikasle bakoitzak berokia hartu eta dagokion patioko eremura zuzenduko da.



- ✓ Goizeko patiotik bueltatzeko erabilitako eredu jarraituko dute, eguerdiko patiotik geletara bueltatzeko unean ere.
- ✓ Jateko-txanda bakoitzaren ostean, jantokian desinfekzioak egingo dira.

2.10. LOGELA

- ✓ Logela eremu ezberdinetan sakabanatu dugu, aforoak murrizteko: bi talde, ohiko logelan; eta beste laurak, beste hiru espazio ezberdinetan.

2.11. GARRAIOA

- ✓ Autobusean derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea, ikasleek nork bere maskara eraman beharko duelarik.
- ✓ Ikasle bakoitzak eserleku finkoa du autobusean.
- ✓ Joan-etorri bakoitzean, ikasleak jarrita daudenean, busetako begiraleek eskuak gel-hidroalkoholikoekin garbituko dizkiete.
- ✓ Geltokiari buruzko gomendioak: doala pertsona bakarra ikasleak eramatera edo bila, pertsona kopurua murrizteko, eta, ahal dela, beti pertsona berbera; mantendu distantziak.
- ✓ Zerbitzu bitarteetan, autobusak era egokiz desinfektatu eta aireztatuko dira.
- ✓ COVID egoera dela eta, behin-behineko bus aldaketak ez dira onartuko. Behin-betikoak, aztertuko dira, busaren arabera taldeketak egin direnez, bus aldaketak ikas-taldean eragina duelako.
- ✓ Bus zerbitzuko bajak ez dira onartuko, ohiko dekalogoan jasota dagoen bezela.
- ✓ Ikastolara autoz datozen ikasleen kasuan, pertsona bakarrarekin etorriko dira, goiz eta arratsaldean, eta ahal dela, beti pertsona bera.

LEHEN HEZKUNTZAKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

2.12. MASKARAREN ERABILERA

Lehen Hezkuntzan maila guztietako ikasleek maskara erabiliko dute une oro: autobusetan, geletan, jolastokietan, jantokiko sarrera-irteeretan eta pasabideetan.

2.13. JARRAIBIDE OROKORRAK

- ✓ Ikasleak 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasunak, usaimenik edo dastamenik ez izatea ... susmatuz gero, ezingo da Ikastolara etorri, etxean gelditu eta osasun-zentrora deitu beharko du. Kasu honetan, familiak, tutorea jakinaren ganean jarri beharko du. Senitartekoren batek ere sintomak edota positiboren bat izanez gero, umea ez da Ikastolara etorriko eta osasun zentroarekin jarriko dira kontaktuan.
- ✓ Familiak ikaslearen emaitza positiboa jakiten duenean, Ikastolan informatu behar du lehenbailehen etapako zuzendari (argaluzap@lauro.eus), erizainari (elorduir@lauro.eus) eta tutoreari e-posta bidaliz.
- ✓ Gaixotasunaren sintomarik ikastolako ordutegian antzemanenez gero, seme-alaba jasotzea eskatuko zaio familiari. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.
- ✓ Eskuak gutxienez garbituko dituzte: goizetan gelara sartzean, jolastordura joan aurretik, goiz-eguerdietako jolastorduetatik sartzean, jatordura joan aurretik, etxera joan aurretik. Horrez gain, eztulka edo doministiku egiten duenak.
- ✓ Motxila eta berokia-sudadera-jertsea ikasle bakoitzak aulkiaren atzealdean izango du, ez dira ohiko pertxak erabiliko.
- ✓ Bakoitzak bere hamaiketakoaren tuperra eta ura edateko botila ekarri eta eramango du egunero, inorekin partekatu gabe.
- ✓ Bakoitzak bere eskola baliabideak izango ditu eta ez ditu inorekin partekatuko. Baliabide horien artean egon daiteke norberak irakurtzeko irakurgai libururen bat, mahai-jolasen bat edo/eta antzekoren bat.
- ✓ Pasabideetan lurrean markatutako norabideak jarraitu beharko dira, multzoak ekidituz eta baita bata bestearekiko kontaktua.
- ✓ Haur edo langileren batek COVID-19n positibo emanez gero, kontaktutzat hartuko da ikasgela edo taldea, eta etxeko berrogeialdia, osasun sailak gomendatzen duen epea, azken egunetik zenbatzen hasita.

2.14. SARRERA ETA IRTEERA

Ikastolako eraikinera sarrera goizetan:

- Ikasleak BUSetik jaitsi eta dagokion atetik bere geletara sartzen joango dira 9:15etarako prest egoteko.
- Autoz datozenak: ohiko ordutegiei jarraituz, ikasleak ohi bezala Behekoloa parean utzi, busetako aparkalekuak oztopatu gabe.
- Sarrera ateak: 4 izango dira

- 1.LH: aldapako atetik.
- 2.LH: jolastoki handiko sarrera printzipaletik.
- 3.LH: beraien solairuko alboko atetik (BUS irteeretako berbera).
- 4.LH: jolastoki handiko sarrera nagusitik.
- 5.LH: beraien solairuko alboko atetik (BUS irteeretako berbera).
- 6.LH: beraien solairuko alboko atetik.
- Ikasleak Busetatik jeitsiz batera, geletara joango dira eta bertara sartzean aurretik irakasleek markatuko dizkien errutinazko ondorengo jarduerak egiteko aprobetxatuko dute klaseak hasi arte:
 - Eskuak garbitu.
 - Motxila eta berokia aulkiaren bizkarraldean jarri.
 - Motxilatik eskola baliabideak atera eta mahai apalean jarri eta ordenatu.
 - Irakasleak banatutako mandalak margotu edo ikasketa egunerokoan aurreko egunean egindakoa idatzi (1.zikloan)
 - Etxetik ekarritako irakurgaia irakurri (2. eta 3.zikloetan)

Ikastolatik irteera arratsaldetan:

- Aurreko ikasturteetan bezala:
 - 1.LH (aldapatik tutoreekin) + 2.LH (bulegoko atetik tutoreekin) + 3-4.LH (3.LHko irteera atetik) + 5-6.LH (5.LHko irteera atetik).
 - 3-4-5-6.LHko ikasleak megafoniak jotzean geletan jarraituko dute aulkietan eserita eta prest, arduradunek irteteko baimena eman arte.
 - Zaintzaileak: ERCISA (2 + 2) + koordinatzaileak (2) + etapako arduraduna (1).
- Autoz bila etorri diren gurasoak eta batutako ikasleak ez dira Ikastolako instalazioetan geratuko, jolastokiak eskola-erabilerarako espazioak baitira.
- Eskolaz kanpoko jarduerak egonez gero:
 - 4-6.LH bere aldeko atetik + 3-5.LH erdiko eskaileratatik.

2.15. GELEN KUDEAKETA




2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, hezkuntza-jarduera hiru jokaleku edo agertokietan gara daiteke. Betiere, 2019-2020 ikasturteko azken hiru hilabeteen zailtasunak agertu dituzten ikasleen berreskurapena kontuan hartu beharko da. Ikasleek beraien ikasketa prozesuaren erritmoa berreskuratzeko lan egin beharko dugu, sortu zaizkien egoera emozional desorekatuak bideratu eta ikasle zein familiei behar dutena eskainiz.

1. Agertokia: normaltasun berri hobetua

Etapako ikasle guztiak normaltasunez hasiko dira irailaren 8an, asteartea.

1. eta 2. zikloak:

- ✓ Talde bakoitzean ikasle kopurua gutxitu da: 21-22 ikasle/gelako, eta ondorioz, 6 talde egongo dira mailako.



- ✓ Taldeak, besteak beste, bizitokiaren arabera eta, beraz, BUSen arabera, berrantolatu dira, EJKo Osasun Sailaren segurtasun eta higiene neurriak ahalik

eta ondoen bermatzeko, talde egonkorrak mantenduz. Era berean, eskola kiroleko taldeak antolatzeko irizpide berdina erabili izan dugu, ahal izan den neurrian.

- ✓ Bikoizketak (Euskera, Ingelera, Matematika, Esperientziak) eta gelen arteko nahasketak (Erljioa-GHB) saihestuko dira. Espazio erreferentea gela izango da eta irakasle erreferentea, tutorea, pertsonen joan etorriak ekiditeko.
- ✓ Gela barruetan Hezkuntza-Osasun Sailak agindutako neurriak hartuko dira: ikasleak banaka jarri, eskuen garbiketarako jelak, eskuzapi eta zarama ontzi bereziak, gelak aireztatzeko prozedura, ikasleen baliabideak ez partekatze sistema, komunetara joan-etorriak antolatu,...
- ✓ Gelatik kanpoko espazioen (sarrera-irteerak, jolastokiak, jantokia) erabilerarako protokoloak definituko dira segurtasun eta higiene neurrietara egokitzeko, eta ikasleak jakitun jarriko dira.
- ✓ Tutoreak arlo guztiak emango ditu Atzerriko Hizkuntza (Ingelera), Hezkuntza Artistikoan - Musika 1.zikloan ezik eta Heziketa Fisikoa 3.zikloan izan ezik. Beraz Curriculum-eko arlo ofizialak: Euskara, Gaztelania, Matematika, Natur Zientziak, Giza Zientziak, Hezkuntza Artistikoa, Tutoretza/H.Emozionala, Erljio/GHB, Gorputz Hezkuntza (1. eta 2.zikloetan). Azken honek, trataera guztiz berezia izango du eta barne sartuko dira ariketak, jolasak, erlaxazio saioak, *mindfulness*, ibilaldiak,... ordutegi malguarekin.
- ✓ Ikasleek Curriculum ofizialeko 25 ordu lektiboak izango dituzte. Gainontzeko orduak (2,5) Curriculum ofizialek kanpo daudenak, gaur egungo eskola ordutegiak mantenduz, jarduera desberdinez osatuko dira:
 - 1. zikloan: Programazio&Robotika + Drama + Ipuin-jolasen tailerra.
 - 2. zikloan: Informatika/P&R + Baratza-esperientzi tailerra + Drama.

3.zikloa:

- ✓ 5 talde mantendu dira baina talde bakoitzean ikasle kopurua gelen neurrira egokitu da.
- ✓ Taldeak bizitokiaren arabera, beraz BUSen arabera, berrantolatu dira, EJKo Osasun Sailaren segurtasun eta higiene neurriak ahalik eta ondoen bermatzeko.
- ✓ Bikoizketak (Euskara, Ingelera, Matematika, esperientziak, Barelikos) eta gelen arteko nahasketak (Erljioa-GHB) saihestuko dira eta espazio erreferentea gela izango da eta irakasle erreferentea, tutorea, pertsonen joan etorriak ekiditeko, ahalik eta talde egonkorrenak mantenduz.
- ✓ Gela barruetan Hezkuntza-Osasun Sailak agindutako neurriak hartuko dira: ikasleak banaka jarri, eskuen garbiketarako jelak, eskuzapiak eta zarama ontzi bereziak, gelak aireztatzeko prozedura, ikasleen baliabideak ez partekatze sistema, komunetara joan-etorriak antolatu...
- ✓ Gelatik kanpoko espazioen (sarrera-irteerak, jolastokiak, jantokia) erabilerarako protokoloak definituko dira segurtasun eta higiene neurrietara egokitzeko, eta ikasleei adieraziko zaizkie.
- ✓ Tutoreak arlo guztiak emango ditu Atzerriko Hizkuntza (Ingelera), Gorputz Hezkuntza, eta Informatika 5.LHn eta *Citizenship* 6.LHn izan ezik.

- ✓ Tutoreek eman beharreko 22 ordu lektiboak arlo hauetan banatuko dira: Euskera, Gaztelania, Matematika, Natur Zientziak, Giza Zientziak, Plastika-Musika, Tutoretza + H.Emozionala, Erlijio/GHB (fusionatuta).

Orientazio taldearen kasuan, PTaren laguntza daukaten ikasleek, bi modutara jasoko dute laguntza: gelan bertan edo PT gelan. Azken honetan emango balute, erabilera bakoitzaren ostean mahaia eta aulkiak desinfektatuko dituzte.

Lehen agertokian, ikaslerik edota ikas-talderik Covid-19agatik berrogeialdian egonez gero (ez 48-72 orduz emaitzak itxaroteko epean edo ohiko gaixotasunengatik), egoera ezberdinak suerta daitezke, eta ondoko prozedurei jarraituko diegu, beti ere, kasu bakoitzaren berezitasunei egokitua:

LH 1 eta 2: hirugarren agertokian azaltzen den prozedura.

LH 3tik 6ra: ikasleen heldutasun eta ahalmenei egokituz:

1. Ikasle bat etxean geratu behar bada, berrogeialdia konfirmatu denean (gelakideak eta tutorea Ikastolan daudela), bereziki arlo instrumentalak on-line jarraitzeko aukera izango du, edukien gutxieneko jarraipena bermatzeko.
2. Ikas-talde osoa etxean geratu behar bada eta irakaslea Ikastolan badago: ohiko ordutegian, on-line jarraitzeko aukera egongo da, beti ere etxeko egoera, baliabideak, etab. kontuan izanik.

Irteerak-egonaldiak:

- ✓ Ikastolatik kanpo eta garraioa erabiliz aspaldidanik maila bakoitzerako aurreikusita egon diren 2 irteerak (egun erdikoa + egun osokoa ikasturte amaieran) ez dira printzipioz egingo, egoerak horrela agintzen duen bitartean.
- ✓ Jarduera bereziak eta aurreikusitakoak (Agate Deuna adibidez), eta barnetegiak (Lurraska 4.LHn) ere, momentuz bertan behera utziko dira egoerak horrela agintzen duen bitartean.
- ✓ Aldiz, aspaldidanik gure planetan jarrita bezala, Ikastolako ingurunearen aukerak aprobetxatuz, ibilaldi eta bisita didaktikoak eta aisialdirakoak bultzatuko dira, beti ere taldeka eta segurtasun neurriak kontuan hartuz: basoak, baserriak, animaliak, landareria, jolasa, kirola... gaiak jorratzeko.

2. Agertokia: agerraldiak izanez gero

Azaldu bezala, LHn 1. agertokian jadanik aurrez aurreko ikaskuntza eta presentzialtasuna lehenesteko geletako ume kopurua gutxitu da eta espazioen berrantolaketa egin da, hezkuntza-jarduera presentzialaren garapena ahalbidetu ahal izateko, haien arteko harremanak gehiago mugatuz.

Bigarren agertoki honetan, aurretiaz aipatu den legez, aurrez-aurreko ikasketa lehenetsiko da, baina arrazoi desberdinengatik talde baten edo gehiagoren konfinamendua suertatuko balitz, talde horiek ikasketa ez presentziala burutuko lukete.

Kasu honetan, gelen antolaketa ikasleen bizitokiaren eta zonaldeen arabera egin izan denez, konfinamendura joan behar izan ezkerro afektatutako gelak kudeatzeko erraztasun handiagoa suposatu beharko luke eta baita modu ez presentzialean atenditzeko taldeari dagokion tutore eta espezifikoen aldetik.

3. agertokia: Ikastolaren itxiera

Honek, itxialdia eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko du baina hezkuntza-jarduerak ez du inolako etenik izango. Eguneroko lana jasotzeaz gain, ikasleak telematikoki konektatzeko ordutegi batzuk ezarriko dira hezkuntza-jardueraren erritmoa eta jarraipena eutsiz.

On-line edo irakaskuntza ez presentziala egin behar dela kontuan izanik, inplikaturako hezkuntza-profesional bakoitzak egin beharreko zereginak zehaztu behar dira, bai banakako lan plana, bai curriculumak aberastea, egokitzen esanguratsuak egin edo curriculumak zabaltzea landu ondoren. Bestalde, tutore ez diren eta beraien ordutegia online eskola saioekin osatzen ez duten langile guztien ordutegien berrantolaketa egingo da irakasle-tutoreekin lankidetzan jardun daitezen.

Agertoki honetan, eskolako irakasleek ondokoak erregistratu beharko dituzte: egunero planifikaturako atazak, gauzatu direnak, ordutegia eta eskaini den irakaskuntzari buruzko informazioa.

Hirugarren agertoki honetan, 2019-20 ikasturteko itxialdi egoerarako planifikaturakoa martxan jarriko litzateke, pertsonal dozentarekin ikasturte amaieran izandako bileretan eta familiei eta ikasleei pasatutako galdekizunetan jasotako iradokizunak eta hobekuntzak gehituz.

LH-Ko irakaskuntza ez presentzialaren ardatzak:

- ✓ **EDUKIAK ETA LANAK KUDEATZEKO SAIO BIRTUALAK 3 SISTEMA ERABILIZ:**
 - o *Bideokonferentziak:* egunero lau saio gela osoarekin (3 tutoreekin eta 1 irakasle espezifikoekin).
 - Edukiak azaltzeko: talde handian (gela osoa edota erdia)
 - Lanen zuzenketak egiteko/talde lanak antolatzeke: talde handian (gela osoa edota erdia)
 - Tutoretza saioak izateko: talde txikian (4-6 ikasle).
 - Irakasle espezifikoekin astero saio bat (Inglesa), HF (3.zikloa), Citizenship (6.LH), Informatika (5.LH).
 - o *Bideotutorialak:* arloen eta edukieren arabera.
 - Edukiak azaltzeko eta bakoitzak bere kabuz erreparatzeko.

- o *Audio-grabaketak*: arloen eta edukieren arabera.
- ✓ TALDE LANA: ikasleei taldeka lan egitea erraztu/bultzatu.
Gure metodologia mantendu, ikasleen arteko harremana mantendu, beraien arteko ardurak banatu, banan-banango lanen zuzenketak ekidin.
- ✓ BAKARKAKO LANA: ikasketa eta edukien barneraketa ziurtatzeko:
Eguneroko lanak. E-POSTA + GDRIVE + CLASSROOM erabiliz.
- ✓ IRAKURKETA:
Eguneroko planteamendua: liburu, ipuin edo artikulua. Horren laburpena.
- ✓ NORBERE EGUNEROKOA IDATZI: aukerak adinaren arabera. Txikientzat txantilo bat prestatu (1-2-3.LH)
 - o Eguneroko errutina + zereginak erregistratuz.
 - o Egunero ikasitakoa erregistratuz.
 - o Egunero izandako gauzarik garrantzitsua + emozioak erregistratuz.
- ✓ JARDUERA OSAGARRIAK:
 - o ARIKETA FISIKO: H.F arloko saio / erronka praktikoa.
 - o PLASTIKA LAN BAT: bakoitzak aukeratu.
 - o ESPERIMENTU BAT: bakoitzak aukeratu.
 - o ERREZETA BAT: bakoitzak aukeratu.
 - o P&R + INFORMATIKA + ZTIAM + Citizenship + Musika/Dantza: 1-2-3-4-5-6.LH
- ✓ ANIZTASUNAREN TRATAERA:
PT + laguntza espezifikoak duten ikasleek: ohiko saio/ordutegia errespetatuz bideokonferentziaz banan-banako saioak. Familiekin (1.zikloa) eta ikasleekin (2-3.zikloetan) adostutako ordutegiak eta baldintzak urteko ohiko orduak ahal dela errespetatuz.
- ✓ EDUKIEN GARAPENERAKO BALIABIDEAK:
 - o LHko edukien plataforma.
 - o Zenbait arloetako plataforma interaktiboak:
 - Matematikarako (Erein). (5-6.LH)
 - Irakurketa ingeleraz (Kuaderno). (2-3-4-5-6.LH)
 - Sare Soziala (Sargoi). (5-6.LH)
 - o Baliabide asinkronoak: e-posta + GDrive + Classroom +
 - o Baliabide sinkronoak: Meet + Classroom
 - o Chromebookak (3-4-5-6.LH) + etxeetako baliabideak (1-2.LH)
- ✓ KOMUNIKAZIOA FAMILIEKIN:
 - o 1. zikloa: 1. eta 2. mailetak gurasoei Lauroko dominioko (@lauro20.eus) e-posta erabiltzaile bat sortuko zaie irakasle eta ikasleen arteko (adin honetan gurasoak izan behar dira bitartekariak) klase ez presentzialak bermatzeko: bideokonferentziak, lan zuzenketak, komunikazioak.

- o Familiei 3 komunikazio mota emango zaie:
 - ALEXIA bidez: zirkularrak + orientazio artikulua.
 - Beraien e-postetara: seme-alabekin egunero lantzen ari garena.

2.16. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

- ✓ Pasabideetan lurrean markatutako norabideak jarraitu beharko dira, multzoak ekidinez eta bata bestearekiko kontaktua ere.
- ✓ Pasabideetan eta jolastokietan maskarak erabili behar dira.

2.17. PATIOEN ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA

- ✓ Ikasleek ez dute etxetik jostailu edota baloirik ekarriko.
- ✓ Pasabideetan eta jolastokietan maskarak jantzita izan behar dituzte.
- ✓ Maila bakoitzak bere espazio eta ordutegia izango du bai goizetako jolastorduan zein eguerdietakoan ere.

- GOIZETAKOAK:

- o 1.ZIKLOA: 1.LH: 11:30/12:15 (45')
2.LH: 10:45/11:30 (45')
- o 2.ZIKLOA:3.LH: 11:00/11:30 (30')4.LH: 10:15/11:00 (45')
- o 3.ZIKLOA:5.LH: 11:30/12:15 (45')
6.LH: 12:15/12:45 (30')

- EGUERDIETAKOAK:

- o 1.ZIKLOA:1.LH: 13:30/14:00 (30')
2.LH: 12:45/13:15 (30')
- o 2.ZIKLOA:3.LH: 13:45/14:30 (45')
4.LH: 12:45/13:15 (30')
- o 3.ZIKLOA:5.LH: 14:30/15:00 (30'). Jolastoki txikian.
6.LH: 14:30/15:15 (45')


- ESPAZIOEN ANTOLAKETA:

- o 1.ZIKLOA:
[Eguraldi ona denean.](#)






Eguraldi txarra denean.



- 2.ZIKLOA:
Eguraldiona.




- Eguraldi txarra.



- 3.ZIKLOA:
Eguraldi ona.



- Eguraldi txarra.



2.18. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

- ✓ Komunetara joan-etorriak irakasleen ardurapean egingo dira eta gelaka antolatutako txandetan.
- ✓ Komunetan sartuko den ikasle kopurua / aforoa komun bakoitzean dagoen inodoro kopuruaren arabera izango da: bi komun bakoitzean. Txandak itxaroteko pasabideetako lurrean seinaleak jarriko dira mantendu beharreko distantziak bermatzeko.

- ✓ Komunak bakarrik erabiliko dira beharrian fisiolojikoetarako, ez eskuak garbitzeko edota ura edateko. Horretarako, gela bakoitzak bere iturria du eskuak xaboiez garbitzeko eta etxetik ekarritako ur-botila betetzeko.

2.19. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA

- ✓ Irakasle bakoitza bere gelako material guztiaren erabilera egokiaz arduratuko da.
- ✓ Komunak hiru aldiz garbitu eta desinfektatuko ditu garbiketako arduradunak egun bakoitzeko jardunaldian, jolastokira joaten diren bakoitzean edo jarduera amaitzen denean. Aldi bakoitzean, jasoko da egin izanaren frogagiria.
- ✓ Jolastokia egunero desinfektatuko da.
- ✓ Gelak aireztatzea: gelak etengabe aireztatuta egongo dira, eguraldiaren arabera. Posible ez denean, klase bitarteetan, jarduera amaitzean eta ahal den guztietan egingo da.

2.20. JANTOKIA

Jantokiko antolaketarako, prebentzio neurri zorrotzak antolatu izan dira ikasturte hasieratik, ondoren azalduko denez, beti ere, egoera aldakorra izanik, egokitzen diharduguna. Irailaren 23an Eusko Jaurlaritzak eskola-jantokien inguruko prebentzio neurriak helarazi dizkigu eta aztertu ditugunean, Ikastolakoak horiek bete ezezik, gaineratik gaudela ikusi dugu.

Arautegi honen arabera, kontuan hartu beharreko gutxienekoak dira:

- *Ordutegi eta txandak egokitzea.*
- *Ohikoa ez den beste jantoki bat eratzekotan, Ikastolako jantokitik hurbil egotea, diafanoa, eta garbitzeko eta aireztatzeke erraza izan dadila.*

Jantoki gunetan errespetatuko da, talde-egonkorrak mantentzea eta talde horien arteko distantzia zaintzea.

Laurok hartutako neurriak ondokoak dira, egoera eta prozedurak aldakarriak direla kontuan izanik:

- ✓ Ikasleak maskarekin sartu-irtengo dira eta jaterakoan gordeta izango dute.
- ✓ Sarrera-irteerak protokolo bitartez definitu dira, ikasleen joan-etorriak egokitzeko.
- ✓ Jantoki nagusian eta txikian manparak jarri dira aurrez-aurre dauden ikasleen artean.
- ✓ Garbiketa eta desinfekzioa txanda bakoitzaren ostean egiten da.
- ✓ Talde egonkorren arteko distantzia bermatuta dago. Honez gain, jantoki nagusiako aforoa gutxitzeko gehiago, eta ikasleak jesarleku bat bai eta bestean ez kokatu ahal izateko, jantoki-espazio berezia egokitu da (Batxiler eraikineko aterpean, mahaietan alboetako manparak daudela eta aurrez aurreko 1,5 metrotako distantzia mantenduz), eta ikasle talde jakin batzuek bertan bazkalduko dute.
- ✓ Txandak dira:

2.21. GARRAIOA

- ✓ BUS barruan eta baita BUSetik jaistean ere, derrigorrezkoa izango da maskararen erabilera, ikasleek nork bere maskara eraman beharko duelarik.
- ✓ Joan-etorri bakoitzean, ikasleak jarrita daudenean, busetako begiraleek eskuak gel-hidroalkoholikoekin garbituko dizkiete.
- ✓ BUS bakoitzeko jesarlekuen antolaketa: ikasleak adinaren eta gelaren arabera kokatuta joango dira eta bakoitzak eserleku bat dut esleiturik, talde egonkorrak errespetatuz.
- ✓ Geltokiari buruzko gomendioak: doala pertsona bakarra ikasleak eramatera edo bila, pertsona kopurua murrizteko, eta, ahal dela, beti pertsona berbera; mantendu distantziak.
- ✓ COVID egoera dela eta, behin-behineko bus aldaketak ez dira onartuko. Behin-betikoak, aztertuko dira, busaren arabera taldeketak egin direnez, bus aldaketak ikas-taldean eragina duelako.
- ✓ Bus zerbitzuko bajak ez dira onartuko, ohiko dekalogoan jasota dagoen bezala.
- ✓ Ikastolara autoz datozen ikasleen kasuan, pertsona bakarrarekin etorriko dira, goiz zein arratsalde, eta ahal dela, beti pertsona bera.
- ✓ Zerbitzu bitarteetan, autobusak era egokiz desinfektatu eta aireztatuko dira.

3. DBH-KO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

3.1. MASKARAREN ERABILERA

Ikasleek une oro maskara erabiliko dute Ikastolan: geletan eta jolastokian, autobusean eta Ikastola barruko joan-etorri guztietan. Ordezko maskara bat izan dezatela gomendatzen dizuegu.

Honez gain, segurtasun distantzia fisikoa bermatu behar dugu, ahal den une oro.

3.2. JARRAIBIDE OROKORRAK

- ✓ Etxetik atera baino lehen, ikasleak tenperatura hartu behar du: 37º baino gehiagoko tenperatura edota sintomak izanez gero, ez da Ikastolara etorriko. Bere osasun-zentroarekin kontaktuan jarriko da eta tutoreari jakinarazi behar zaio zergatik ez datorren ikaslea, dagokion protokoloa martxan jartzeko. Senitartekoren batek ere sintomak edota positibo bat izanez gero, ikaslea ez da Ikastolara etorriko eta osasun zentroarekin jarriko dira kontaktuan.
- ✓ Familiak ikaslearen emaitza positiboa jakiten duenean, Ikastolan informatu behar du lehenbailehen etapako zuzendari (puentey@lauro.eus), erizainari (elorduir@lauro.eus) eta tutoreari e-posta bidaliz.
- ✓ Gaixotasunaren sintomarik ikastolako ordutegian antzeman ez gero, bai sarrera orduan zein egunean zehar, ikaslea Agorako gela txikian isolatuko da, eta gurasoei jakinaraziko diegu seme-alabaren bila etor daitezen. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.

Egoera berria da guztiontzat, pandemia baten ondorioak oso larriak dira eta giza-erantzukizunez jokatu behar dugu. Arauak bete ezean, diziplina neurriak hartuko dira.

Ikastolan egon beharreko orduak:

- ✓ Eskuak garbitzea: geletan ere gel hidroalkoholikoa egongo da.
- ✓ Ikasleak ez dira egongo pasabide eta eskaileretan pertsona multzoak ekiditeko.
- ✓ Eskola ordu arteko tartean ez dira gelatik irtengo.
- ✓ Gelan, ikasle bakoitzak bere mahaia izango du, izenez adierazita, eta ikaslearen beraren erantzukizuna izango da modu egokian zaintzea eta garbitzea.
- ✓ Kutxatilak ez dira erabiliko: motxilak eta bestelako materiala gelan bertan gorde behar da.

- ✓ Ikasle bakoitzak bere materiala ekarri behar du (koadernoak, ipada, idaztekoa...). Debekatuta dago materiala beste inori uztea edota ematea.
- ✓ Komunera banan-banan joango dira irakaslearen baimenarekin. Norbait barruan egonez gero, kanpoan itxaron beharko da eta, behar izanez gero, ilara bat egingo da distantzia mantenduz.
- ✓ Ez da komuneko iturria erabiliko: norik bere kabuz ur-botila ekarriko du.
- ✓ Koordinatzaileekin hitz egin behar izanez gero, jolastorduetan joango dira bulegora ikasleak. Zuzendariarekin hitz egin behar izanez gero, koordinatzaileengana joango dira baimena eskatzera.
- ✓ Irakasleekin hitz egiteko eskola orduetan egin behar da, ez mintegietara joanez.
- ✓ Gelaz aldatu behar izatekotan, ikasleak erabiliko duen mahaia garbitu behar du eseri aurretik gelan dauden produktuekin. Erabilitako papera pedaldun zakarrontzira botako du.
- ✓ Ikasleak, egunaren amaieran, eguneroko batean apuntatuko du zeintzuk izan diren gertu-gertuko kontaktuak gelakideen artean.

Jolastorduak:

- ✓ Ikasleek maskara jantzita izango dute jolastordu eta honetarako joan-etorrietan.
- ✓ Ikasleek jolastokira joateko dagokien pasabideko eskailerak erabiliko dituzte, larrialdietako ateetatik ateraz.
- ✓ Jolastordu amaieran geletara itzultzeko ibilbide berdina egin behar du ikasleak. (ordutegi eta txandak 4.6. atalean)

Jantokia:

- ✓ Jantokira joan-etorriak egiteko, ikasleek maskara jantzita eramango dute. Bazkaldu bitartean, gordeta izango dute.
- ✓ Ikasle bakoitzak leku finkoa zaingo du, gelen arabera antolatuta.
- ✓ Mahaikideen arteko distantziak eta segurtasun neurriak bermatuko dira bai aurreko kideekin zein beste mahaikideekin, bai eta mahaian garbiketa ere. Jantokiko mahaietan manparak izango dute aurrez-aurre dauden ikasleekiko.
- ✓ Jantokira joateko irteera mailakatua izango da, larrialdietako ateetatik ateraz.
- ✓ Jolastordu amaieran geletara itzultzeko goizeko ibilbide berdina egin behar du ikasleak.

3.3. SARRERA ETA IRTEERA

- **Sarrera:**

Ikastolara etorri bezain pronto, geletara abiatuko dira, eta hauek zabalik egongo dira. Eraikinean sartzean eskuak garbitu eta kamara termografikoaren aurretik igaroko dira tenperatura neurtzeko.

Geletara igotzeko, adierazitako seinaleei jarraituko diete, bakoitzak bere bidea eginez:

- DBH 2-3: ekialdeko eskaileretatik igoko dira (Tekno aldekoak).
- DBH 1-4: Agorari buelta emango diote eta mendebaldeko eskaileretatik igoko dira (Liburutegi aldekoak).

Autoz ekartzen badituzue: jarraitu ohiko prozedura eta ordutegia, ikaslea Behekosolara aurrean utziz. Gurasoak ezin dira Ikastolan geratu edota eraikinetan sartu, hitzorduarekin ez bada.

- **Irteera:**

Irteera mailakatua egingo da, larrialdietako ateetatik:

- o DBH1-2: 15:20etan aterako dira, dagokien pasabideko eskailerak erabiliko dituzte. Klaseetako irteera ere mailakatua izango da. Lehenik A, gero B, gero C, D eta azkenik E.
- o DBH3-4: 15:25etan aterako dira, dagokien pasabideko eskailerak erabiliko dituzte. Klaseetako irteera ere mailakatua izango da. Lehenik A, gero B, gero C, D eta azkenik E.

Autoz bila bazatozte, ez geratu mesedez Ikastolako instalazioetan, jolastokiak eskola-erabilerarako espazioak baitira.

3.4. GELEN KUDEAKETA

1. Agertokia: normaltasun berri hobetua

Agertoki honetan, Hezkuntza Sailak adierazitako sarrera mailakatua egin ahal izateko, ikasturte hasiera bi modutara egingo da DBHn: ikasle guztiek irailaren 8an hasiko dute ikasturtea, DBH 1-2koek, presentzialki, eta DBH 3-4koek, on-line. Azken hauek hasiera presentziala irailaren 15ean izango dute.

DBHko ikasleek eraikin propioa dute, eta ziklo bakoitzak, bere solairua. Maila bakoitzak bere pasabidea du, eta beraz, ez dira elkarrekin nahastuko.

Talde bakoitzak bere gela izango du.

Lehen zikloan (DBH1 eta DBH2) soilik mugituko dira Gorputz Heziketa kalean burutzeko. 2. zikloan joan-etorriak ahal izan dugun guztia murriztu ditugu (ingeleseko mailaketak kendu, bikoizketak kendu) gelan ikasgai gehienak emanaz. Hautazko eta aukeragaietarako bakarrik mugituko dira. Mugitu behar izanez gero, irakasleak hartuko du ardura ikasle bakoitzak bere mahaia garbitzeko. Aukeragaietan ez dira gela naturalak erabiliko, espazio berriak eta desinfektatuak erabiliko ditugu klase horietarako, ordu biak jarraian izango dira eta eguneko azkenengo orduetan egingo dira, era egokiz desinfektatzeko denbora emateko.

Orientazio taldearen kasuan, PTaren laguntza daukaten ikasleek, bi modutara jasoko dute laguntza: gelan bertan edo PT gelan. Azken honetan emango balute, erabilera bakoitzaren ostean mahaia eta aulkiak desinfektatuko dituzte.

DBH3-n erabiliko diren gelak hauek izango dira:

- ❖ Kalakari: Batxilergoko sotoa.
- ❖ Kirola: kanpoko espazioetan.
- ❖ Ikerketa Faktoria: Liburutegian.
- ❖ Marrazketa teknikoak: Plastika gela.
- ❖ Frantsesa: Liburutegi ondoko gela.

DBH4-n erabiliko diren gelak hauek izango dira:

- ❖ Kalakari: Batxilergoko sotoa.
- ❖ Teknologia: Teknologia gelan
- ❖ Filosofia: Liburutegian.
- ❖ Marrazketa teknikoak: Plastika gela eta Informatika gela
- ❖ Frantsesa: Liburutegi ondoko gela.

Lehen agertokian, ikasleren batek berrogeialdia egin behar badu edota etxean geratu Covid-19 gaixotasuna duelako, irakasleen atentzio pertsonalizatua, lanen jarraipena edota bideokonferentziak izango ditu. Gainontzeko gaixotasun edota ausentziekin, ohiko jarraibideak beteko dira.

2. Agertokia: agerraldiak egonez gero

Eskola presentzialaren garrantzia kontuan izanda, gure ikasleek ahalik eta aurrez-aurreko ordu gehien izateko, asteko egun bakoitzean ikasleen 1/5ena on-line emango lituzkete eskolak. Asteko egun bakoitzean ikasle desberdinak egongo lirake on-line klaseak ematen.

Modu honetara, ikasleen arteko distantzia handitzen da.

3. egoera: Ikastolaren itxiera

Honek, itxialdia eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko luke, klaseak on-line emanaz, baina eskola jarduerak ez luke etenik izango, hezkuntzak adierazitako temarioarekin jarraituz.

Ohiko ordutegia jarraituko litzateke, 8:00etatik 15:30era, atsedenaldiak eta bazkal orduak errespetatuz. Ikaslea klase hasieran konektatuko da dagokion irakaslearekin plataforma teknologiko desberdinen bitartez, eta ordu horretarako egin beharrekoaren jarraibideak jasoko ditu. Gurasoek egindako lanaren jarraipenaren berri izango dute.

ANIZTASUNAREN TRATAERA:

- o Etapako orientatzaileak, bideratuta dauden edo irakasleak kezka adierazi dien ikasleen jarraipena egingo du eta behar izanez gero materiala eta baliabideak prestatu eta eskainiko dizkie.
- o PT eta laguntza espezifikoa duten ikasleek, banakako saioak jasoko dituzte, dagokion ordu kopurua kontuan harturik. Horrez gain, behar izanez gero materiala eta baliabideak helaraziko zaizkie.

3.5. BARRUKO JOAN-ETORRIEN KUDEAKETA

Eskola ordu arteko tartean ikasleak ez dira gelatik aterako. Ezinbestean egin behar badute, betiere, maskara jantzita izango dute. Lurrean adierazita dauden norabideak errespetatuko dira.

Koordinatzaileekin hitz egin behar izanez gero, jolastorduetan joango dira bulegora ikasleak. Zuzendariarekin hitz egin behar izanez gero, koordinatzaileengana joango dira baimena eskatzera. Irakasleekin hitz egiteko eskola orduetan egin behar da. Ezin da mintegietara joan.

3.6. PATIOEN ETA AISIALDI DENBORAREN KUDEAKETA

- ✓ Ikasleek patiora joateko dagokien pasabideko eskailerak erabiliko ditzute, larrialdietako ateetatik ateraz.
- ✓ Maskara derrigorrezkoa izaten jarraitzen du.
- ✓ Segurtasun tarteak errespetatu behar da.
- ✓ Jolastordu amaieran geletara itzultzeko ibilbide berdina egin behar du ikasleak.
- ✓ Klaseetara bueltatzeko gertutasunaren arabera egingo dugu eta gelaka joan behar dira:
 - **DBH1 edo 3:** lehenik frontoietan daudenak, gero aldapa gorrikoak; eta ostean, bus aparkalekukoak.
 - DBH1ekoak barruan daudela, **DBH2koak** hasiko dira sartzen: lehenik HH-ko aldapan daudenak; ostean, beheko pistan daudenak; eta


amaitzeko, goiko pistan daudenak.

- **DBH4koak** ez dira klasera bueltatu behar.

Goizeko jolastorduak:

1. ZIKLOA: 10:00-10:25

- ✓ 1. eta 2. DBHko talde guztiak kalera irtengo dira eguraldi ona egiten duenean. Talde bakoitzeko eremua zehaztuta dago eta ezinbestekoa da errespetatzea.



- ✓ Euria egiten duenean, 1. eta 2. DBHko taldeak kalera irteteko txandakatuko dira. Aste batean kalera irtengo dira 1.DBHkoak (2. DBHkoak gelan gelditzen diren bitartean) eta hurrengo astean 2.DBHkoak irtengo dira kalera (1.DBHkoak gelan gelditzen diren bitartean). Txandak kontrolatzeko, egutegi bat zehaztuko da.



2. ZIKLOA: 11:00-11:25

- ✓ 3. eta 4. DBHko talde guztiak kalera irtengo dira eguraldi ona egiten duenean. Talde bakoitzeko eremua ipinita dago eta ezinbestekoa da errespetatzea.



- ✓ Euria egiten duenean, bakarrik aterako da DBH3 eta eremuak aldatuko dira:



4. DBH: 11:00-11:50

Jolastordua luzeagoa denez, bitan zatituko ditugu:


- ✓ **11:00- 11:30** egokitutako espazioan egongo dira edo gelan geldituko dira jesarrita, euria egiten badu soilik.
- ✓ **11:30-11:50:** kalean egon badira egokitutako eremuetan egongo dira eta gelan egon badira, horrek esan nahi du euria egiten duela, hauek izango dira espazioak.



Arratsaldeko jolastorduak:

1. eta 2. DBH Eguraldi ona egiten badu.

- ✓ Klase bakoitzak bere ermua izango du. Eraikiner sartzeko, gertutasunaren arabera egingo dugu.



3. DBH Eguraldi ona egiten badu.

- ✓ Klase bakoitzak bere ermua izango du. Eraikiner sartzeko edo geletara joateko, gertutasunaren arabera egingo dugu.



- ✓ Lehenengoak igotzen DBH3ABkoak izango dira, gero DBH3Ekoak. Ostean DBH1eko ikasle guztiak sartuko dira. Hauen atzetik DBH3C. DBH3koak eta

DBH1ekoak barruan daudela DBH2koak sartuko dira eta azkenik, DBH3Dkoak sartuko dira.

DBH 1., 2. eta 3., euria egiten badu.

Arratsaldeko patioa aldi berean izango dute. Beraz, euria egiten badu, kontaktuak ekiditeko, jolastokian txandak egongo dira:

- Astelehenean eta ostegunean DBH1ekoak egongo dira patioan ezarritako guneeetan.
- Astearteetan eta ostiraletan, DBH2koak.
- DBH3koak asteazkeneetan egongo dira ezarritako guneeetan.



4. DBH 12:15-12:30, eguraldi ona egiten badu

✓ Klase bakoitzak bere ermua izango du.



✓ Geletara itzultzeko, beste mailetakako ikasle guzti-guztiak eraikinetik atera arte zain egon behar dute.

4. DBH 12:15-12:30 euria egiten badu

✓ Klase bakoitzak bere ermua izango du.



✓ Geletara itzultzeko, beste mailetakako ikasle guzti-guztiak eraikinetik atera arte zain egon behar dute.

3.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

- ✓ DBH-n maila bakoitzak bere komun propioak ditu, beraz horiek erabiliko dituzte ikasleek. Patioetan maila bakar bat egongo denez, beheko solairuko komunak erabili ahal izango dituzte.
- ✓ Patioetara doazenean komunak garbituko dira, baita patio guztien ostean ere.
- ✓ Ikasleek komunera joan behar badute, irakasleari baimena eskatuko diote eta irakaslearen baimenarekin joango dira. Banan-banan joango dira eta baten bat komunean egonez gero, kanpoan itxarongo dute, ilara batean, distantziak mantenduz.
- ✓ Komuneko iturritik ezin da edan, beraz ikasle bakoitzak bere ur botila ekarri behar du etxetik.

3.8. GARBIKETA, DESINFEKZIOA ETA AIREZTATZEA

- ✓ Guztiok, garbiketa eta desinfekzio neurriak areagotu behar ditugu
- ✓ Irakasle bakoitza bere gelako material guztiaren garbiketaz arduratuko da.
- ✓ Garbiketako arduradunak komunak garbitu eta desinfektatuko ditu patiora joaten direnean, baita patio guztien ostean ere, egunean 3 aldiz, patio orduetan eta jarduera amaitzerakoan. Desinfekzioen jarraipena jasoko da.
- ✓ Patioko eremu desberdinak, erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira.
- ✓ Ikasleak gelaz aldatu behar badira, geletara sartzen direnean eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin eta mahaia eta aulkia desinfektatuko dute.
- ✓ Gelak aireztatzea: gelak etengabe aireztatuta egongo dira, eguraldiaren arabera. Posible ez denean, klase bitarteetan, jarduera amaitzean eta ahal den guztietan egingo da.

3.9. JANTOKIA

Jantokiko antolaketarako, prebentzio neurri zorrotzak antolatu izan dira ikasturte hasieratik, ondoren azalduko denez, beti ere, egoera aldakorra izanik, egokitzen diharduguna. Irailaren 23an Eusko Jaurlaritzak eskola-jantokien inguruko prebentzio neurriak helarazi dizkigu eta aztertu ditugunean, Ikastolakoak horiek bete ezezik, gainera gaudela ikusi dugu.


Arautegi honen arabera, kontuan hartu beharreko gutxieneakoak dira:

- *Ordutegi eta txandak egokitzea.*
- *Ohikoa ez den beste jantoki bat eratzekotan, Ikastolako jantokitik hurbil egotea, diafanoa, eta garbitzeko eta aireztatzeko erraza izan dadila.*

Jantoki gunetan errespetatuko da, talde-egonkorrak mantentzea eta talde horien arteko distantzia zaintzea.

Laurok hartutako neurriak ondokoak dira, egoera eta prozedurak aldakarriak direla kontuan izanik:

- ✓ Jantoki nagusiko mahaietan manparak daude aurrez-aurre dauden ikasleen artean. Alboetara, ikas-talde egonkorrek distantzia egokiarekin kokatuko dira.
- ✓ Manpara eta distantziez gain, jantoki nagusiko aforoa gutxitu ahal izateko, hau da, ikasleak jesarleku bat bai eta bestean ez kokatuta egoteko, jantoki-espazio berezia egokitu da: Batxiler eraikineko aterpean, mahaietan alboetako manparak daudela eta aurrez aurreko distantziak mantenduz.
 - DBH 1: jantoki txikian. Ikasle kopuru jakin batek Batxilerreko aterpeko jantokian bazkalduko du, talde egonkorrek mantenduz.
 - DBH 2-3: jantoki handian. Ikasle kopuru jakin batek Batxilerreko aterpeko jantokian bazkalduko du, talde egonkorrek mantenduz.
 - DBH 4: jantoki handian bazkalduko dute.



- ✓ Txanda bakoitzaren ostean garbiketa eta desinfekzioa egingo da.
- ✓ Jantokira joateko irteera mailakatua izango da, larrialdietako ateetatik ateraz, ondorengo ordenari jarraituz:
 - DBH2 12:20an atera, dagokien pasabideko eskailerak erabiliko dituzte, larrialdietako ateetatik ateraz. Betiko bidea egingo dute jantokira joateko eta pasabide zuritik sartuko eta irtengo dira. Klaseetako irteera ere mailakatua izango da. Lehenik A, gero B, gero C, D eta azkenik E.

- DBH1ko ikasleak 12:25ean aterako dira, dagokien pasabideko eskailerak erabiliko dituzte, larrialdietako ateetatik ateraz. Betiko bidea egingo dute jantokira joateko eta LH-tik sartuko eta aterako dira. Klaseetako irteera ere mailakatua izango da. Lehenik A, gero B, gero C, D eta azkenik E.
- DBH3koak 12:30ean aterako dira, dagokien pasabideko eskailerak erabiliko ditzute, larrialdietako ateetatik ateraz. Betiko bidea egingo dute jantokira joateko, baina jantokiaren atzetik joango dira eta atzeko ateetatik sartuko eta aterako dira. Klaseetako irteera ere mailakatua izango da. Lehenik A, gero B, gero C, D eta azkenik E.
- DBH4koentzako jantokia: 11:50ean jolastokian daudela, Batxilergoko txirrina entzutean, ikasleak jantokira joango dira. Jantokiko atzeko partetik joango dira, atzeko ateetatik sartuz. Ibilbide berdina egingo dute ateratzeko. Jolastordu amaieran geletara itzultzeko goizeko ibilbide berdina egin behar du ikasleak.

3.10. GARRAIOA

- ✓ Autobusean sartzeko ezinbestekoa da maskara ipinita izatea.
- ✓ Joan-etorri bakoitzean, sarterakoan, ikasleek autobusean dagoen gel-hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eskuak.
- ✓ Ikasle bakoitzak jesarleku bat du esleituta eta ezinbestean horixe erabili behar du.
- ✓ Ez dira behin-behineko bus aldaketak onartuko talde egonkorrak ahal den neurrian gordetzeko. Behin-betiko aldaketak aztertuko dira.
- ✓ Bus zerbitzuko bajak ez dira onartuko, ohiko dekalogoan jasota dagoen bezala.
- ✓ Autobus enpresa guztiek desinfekzio eta aireztatze protokoloak jarraituko dituzte. Erabilera-txanda bakoitzaren ostean, autobusaren erabateko garbiketa eta aireztatzea egingo da.
- ✓ Ikastolara autoz datozen ikasleen kasuan, pertsona bakarrarekin etorriko dira, goiz eta arratsaldean, eta ahal dela, beti pertsona bera.

5. BATXILERGOKO ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

5.1. MASKARAREN ERABILERA

Ikasleek une oro maskara erabiliko dute Ikastolan: geletan eta jolastokian, autobusean eta Ikastola barruko joan-etorri guztietan. Ordezko maskara bat izan dezatela gomendatzen dizuegu

Honez gain, segurtasun distantzia fisikoa bermatu behar dugu, ahal den une oro.

5.2. JARRAIBIDE OROKORRAK

- ✓ Etiketarik atera baino lehen, ikasleak tenperatura hartu behar du: 37º baino gehiagoko tenperatura edota sintomak izanez gero, ez da Ikastolara etorriko. Bere osasun-zentroarekin kontaktuan jarriko da eta tutoreari jakinarazi behar zaio zergatik ez datorren ikaslea, dagokion protokoloa martxan jartzeko. Senitartekoren batek ere sintomak edota positibo bat izanez gero, ikaslea ez da Ikastolara etorriko eta osasun zentroarekin jarriko dira kontaktuan.
- ✓ Familiak ikaslearen emaitza positiboa jakiten duenean, Ikastolan informatu behar du lehenbailehen etapako zuzendari (sernaz@lauro.eus), erizainari (elorduir@lauro.eus) eta tutoreari e-posta bidaliz.
- ✓ Gaixotasunaren sintomarik ikastolako ordutegian antzemanez gero, bai sarrera orduan zein egunean zehar, ikaslea COVID-isolamendu gelara bideratuko da (Paraninfoan), eta gurasoei jakinaraziko diegu seme-alabaren bila etor daitezela. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.

Egoera berria da guztiontzat. Pandemia baten ondorioak oso larriak dira eta giza-erantzukizunez jokatu behar dugu. Arauak bete ezean, diziplina neurriak hartuko dira.

Ikastolan egon beharreko orduak:

- ✓ Ikasleak ez dira pasabide eta eskaileretan egon behar pertsonen multzoak ekiditeko.
- ✓ Geletan gel hidroalkoholikoa, mahaia desinfektatzeko produktua eta garbitzeko papera egongo da.
- ✓ Eskola-ordu tartetean ez da gelatik irten behar.
- ✓ Kutxatila ez dira erabiliko, motxilak eta bestelako materiala gelan bertan gorde behar da.

- ✓ Ikasle bakoitzak bere materiala ekarri behar du (koadernoak, ipada, idaztekoa...). Debekatuta dago materiala beste inori uztea edota ematea.
- ✓ Komunera banan-banan joango dira irakaslearen baimenarekin. Norbait barruan egonez gero, kanpoan itxaron beharko da. Ikasle asko egotekotan ilara egingo da, distantziak mantenduz.
- ✓ Komuneko iturria ez da ura edateko erabiliko. Nork bere botila ondo identifikatuta ekarriko du.
- ✓ Irakasleekin hitz egiteko eskola orduetan egin behar da. Ez da mintegietara joan behar, ez bada aurretik irakaslearekin adostu.
- ✓ Ikasleak egunaren amaieran eguneroko batean apuntatuko du zeintzuk izan diren gertu-gertuko kontaktuak gelakideen artean.
- ✓ Gela berezietan - IKT, Laborategi eta Paraninfoa: besteetan bezala, sartzean gel hidroalkohólikoa erabiliko da. Klasea amaitzerakoan, irten aurretik erabili den lekua eta tresnak garbitu behar dira eta papera pedaldun zakarrontzira botako da. IKT gelan lana bikoteka egingo den kasuetan, bikoteko ikasle batek erabiliko du ordenagailua egun bakoitzean. Laborategian eskularruak derrigorrezkoa izango dira lan egiteko.

Mahaien eta aulkien erabilera:

- ✓ Ikasleek gelan mahai propioa izango dute, euren izenez markatuta.
- ✓ Norberaren erantzukizuna izango da ondo zaintzea eta garbitzea, gelan bertan dauden produktuekin.
- ✓ Ikasleek ez dituzte euren artean mahaiak trukatu ere. Lurrean adierazitako markak errespetatutako dira.
- ✓ Modalitateko ikasgairaren batean, ikasleak gelaz aldatu beharko dira. Kasu hauetan, gelatik irtetean mahaiak garbitu beharko dute, desinfektatzaile eta paperezko zapiak erabiliz. Gela hauetan ere mahaietan izena jarrita izango dute.

5.3. SARRERA ETA IRTEERA

• Sarrera:

Ikastolara etorri bezain pronto, eraikinean sartuko dira Paraninfo ondoko atetik. Eraikinera sartzean gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.

Banaka igaroko dira kamara termografikoaren aurretik eta tenperatura neurtu ostean geletara zuzenean joango dira. Ikasle bakoitza bere mahaian eseriko da.

Kamarak ikasle batek sukarra duela detektatzen badu, ikaslea COVID-isolamendu gelara bideratuko da (Paraninfoa) eta gurasoei jakinaraziko zaie seme-alabaren bila lehenbailehen etor daitezten. Familia bere osasun zentruarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.

- Kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du.
- Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza ingurunean eta hezkuntza ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

COVID isolamendu gela kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da.

Adierazitako seinaleei jarraituz, Batxilergoko lehen mailako ikasleak Agoratik igoko dira lehen eta bigarren solairura, non gelak izango dituzten. Bigarren mailako ikasleak ohiko eskaileretatik igoko dira, bigarren eta laugarren solairura non gelak izango dituzten.

- **Irteera:**

Irteera mailakatua egingo da, ate ezberdinetatik: lehenik 1. Batxilerreko ikasleak, taldeen arabera; eta ostean, 2. mailakoak.

5.4. GELEN KUDEAKETA

1. Agertokia: normaltasun berri hobetua

Agertoki honetan, Hezkuntza Sailak adierazitako sarrerra mailakatua egin ahal izateko, ikasturte hasiera Batxilerrean on-line izango da irailaren 8an eta presentziala irailaren 15ean.

Batxilerreko etapa eraikin propioan dago eta bertan lehen mailako ikasleak atal batean egongo dira eta bigarrenekoak, bestean, beraien artean ez elkartzeko.

Talde bakoitzak bere gela izango du. Talde egonkorrak eta ikasleen arteko distantziak 1,5 metrotakoak izango dira, eta soilik mugituko dira ikasleak modalitateko ikasgaiak edo aukerak ematen dituztenean, beti gela berdinetara mugituz.

Lehen agertokian, ikasleren batek berrogeialdia egin behar badu edota etxean geratu Covid-19 gaixotasuna duelako, irakasleen atentzio pertsonalizatua, lanen

jarraipena edota bideokonferentziak izango ditu. Gainontzeko gaixotasun edota ausentziekin, ohiko jarraibideak beteko dira.

Lehen agertokian, ikasleren batek berrogeialdia egin behar badu edota etxean geratu Covid-19 gaixotasuna duelako, irakasleen atentzio pertsonalizatua, lanen jarraipena edota bideokonferentziak izango ditu. Gainontzeko gaixotasun edota ausentziekin, ohiko jarraibideak beteko dira.

2. Agertokia: agerraldiak egonez gero

Klase presentzialaren garrantzia kontuan izanda, gure ikasleek ahalik eta aurrez-aurreko ordu gehien izateko, asteko egun bakoitzean ikaslearen 1/5ena on-line emango dituzte eskolak. Asteko egun bakoitzean ikasle desberdinak egongo dira on-line klaseak ematen.

Honela espazio ikasleen arteko espazioa handitzen da.

3. Agertokia: Ikastolaren itxialdia

Honek, itxialdia eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko du, baina eskola jarduerak ez du etenik izango, hezkuntzak adierazitako temarioarekin jarraituz.

Ohiko ordutegia jarraituko da, 8:00retatik 15:30tara eta 11:50-12:30 atsedenaldia mantenduz, klaseak on-line emanez. Ikasleak orduaren hasieran konektatuko da dagokion irakaslearekin plataforma teknologiko desberdinen bitartez, eta ordu horretarako egin beharrekoaren jarraibideak jasoko ditu. Gurasoek egindako lanaren jarraipenaren berri izango dute.

5.5. BARRUKO DESPLAZAMENDUEN KUDEAKETA

Eskola ordu arteko tartean ikasleak ez dira gelatik aterako. Ezinbestean egin behar badute, betiere, maskara jantzita izango dute. Lurrean adierazita dauden norabideak errespetatuko dira.

Irakasleekin hitz egiteko eskola orduetan egin behar da. Mintegietara joateko, irakaslearekin aldez aurretik hitzordua eskatu behar da.

5.6. JANTOKIAREN ETA JOLASTOKIEN KUDEAKETA

Jantokiko antolaketarako, prebentzio neurri zorrotzak antolatu izan dira ikasturte hasieratik, ondoren azalduko denez, beti ere, egoera aldakorra izanik, egokitzen diharduguna. Irailaren 23an Eusko Jaurlaritzak eskola-jantokien inguruko prebentzio neurriak helarazi dizkigu eta aztertu ditugunean, Ikastolakoak horiek bete ezezik, gainetik gaudela ikusi dugu.



Arautegi honen arabera, kontuan hartu beharreko gutxienekoak dira:

- *Ordutegi eta txandak egokitzea.*
- *Ohikoa ez den beste jantoki bat eratzekotan, Ikastolako jantokitik hurbil egotea, diafanoa, eta garbitzeko eta aireztatzeko erraza izan dadila.*

Jantoki gunetan errespetatuko da, talde-egonkorrak mantentzea eta talde horien arteko distantzia zaintzea.


Laurok hartutako neurriak ondokoak dira, egoera eta prozedurak aldakarriak direla kontuan izanik:

- ✓ Ikasleek ikastolan bazkaltzeko edo etxetik janaria ekartzeko aukera izango dute. Ikastolan bazkaltzea erabakitzen badute, asteko egun guztietan izan behar da.
- ✓ Ikasleek jantokian leku finkoak izango dituzte eta gelaka antolatuko dira.
- ✓ Jantokira asteroko txandetan bertaratuko dira aforoa murrizteko, ikasleak jesarleku bat bai eta bestean ez jesarrita egoteko: aste batean 1. Batxilergokoak joango dira jantokira eta hurrengo astean, 2. Batxilergokoak.
- ✓ Jantokira joaten ez direnean, sukaldetik ekarritako janaria Batxiler eraikineko aterpean antolatutako jantokian bazkalduko dute, bereziki instalatu eta prestatutako mahaietan, norbera bere lekuan. Egun hauetan ikasleek euren ur-botila ekarri behar dute.
- ✓ Mahaikideen arteko distantziak eta segurtasun neurriak bermatuko dira bai aurreko kideekin zein beste mahaikideekin, bai eta mahaien garbiketa ere. Gela bakoitzak bere eremua eta beste gelarekiko distantzia izango du, mahai ezberdinetan egonda. Segurtasuna zaintzeko manparak edota beharrezko distantzia gordeko da.



FRONTOIA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40
41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60
61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80
81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	00
01	02	03	04	05						06	07	08	09	10	11	12	13	14	15
116		117				118				119			120		121		122		
123		124				125				126			127		128		129		
130						131				132			133		134		135		136
137						138				139			140		141		142		143
144						145				146			147		148		149		150



- ✓ Ikasleak jantokitik edo aterpetik irten eta jolastokira joango dira. Jolastokian ikasleek euren gelakideekin egon behar dute (ez dira beste gelako ikasleekin harremanduko).
- ✓ Batxilergoko patio eremuak dira: Agora, aterpea, goiko futboltxo zelaia, bus aparkalekuak (mugak Kiroldegia eta Haur Hezkuntzako eraikina izanda). Batxilerreko ikasleak ez dira DBHko eremuetara joango.
- ✓ Batxilergoko txirrina entzutean, ikasleak geletara itzuliko dira. Paraninfo ondoko atletik sartuko dira kamara termografikoaren aurretik eta tenperatura neurtu ostean geletara abiatuko dira goizean eraikinera sartzeko duten bide beretik.

5.7. KOMUNEN ERABILERAREN KUDEAKETA

- ✓ Batxilergoko eraikina bitan banatuko da: Lehenengo Batxilergoko ikasleek 2. solairuan dauden nesken eta mutilen komunak erabiliko dituzte; eta Bigarren Batxilergoko ikasleek, 4. solairuan daudenak.

- ✓ Ikasleek komunera joan behar badute, irakasleari baimena eskatuko diote eta irakaslearen baimenarekin joango dira. Banan-banan sartu behar dira komunetara eta baten bat egonez gero, kanpoan itzarongo dute ilara batean, distantziak mantenduz.
- ✓ Komuneko iturritik ezin da edan, beraz ikasle bakoitzak bere ur botila ekarri behar du etxetik.

5.8. GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

- ✓ Irakasle bakoitza gelatik irteteen bere mahaian eta erabilitako materiala desinfektatuko du.
- ✓ Ikasleak gelaz aldatu behar badira, gelatik irteteen materiala desinfektatuko dute bertan dauden produktuekin.
- ✓ Garbiketako arduradunak komunak garbitu eta desinfektatuko ditu patiora joaten direnean eta jarduera amaitzerakoan, beraz, egunean birritan.
- ✓ Patioko eremu desberdinak, erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira.
- ✓ Gelak aireztatzea: gelak etengabe aireztatuta egongo dira, eguraldiaren arabera. Posible ez denean, klase bitarteetan, bazkaldu eta gero, jarduera amaitzean eta ahal den guztietan egingo da.

5.9. GARRAIOA

- ✓ Autobusean sartzeko ezinbestekoa da maskara ipinita izatea.
- ✓ Ikasle bakoitzak jesarleku bat du esleituta eta ezinbestean horixe erabili behar du.
- ✓ Joan-etorri bakoitzean, sartzerakoan, ikasleek autobusean dagoen gel-hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eskuak.
- ✓ Ez dira behin-behineko bus aldaketak onartuko talde egonkorak ahal den neurrian gordetzeko. Behin-betiko aldaketak aztertuko dira.
- ✓ Bus zerbitzuko bajak ez dira onartuko, ohiko dekalogoan jasota dagoen bezala.
- ✓ Autobus enpresa guztiek desinfekzio eta aireztatze protokoloak jarraituko dituzte. Erabilera-txanda bakoitzaren ostean, autobusaren erabateko garbiketa eta aireztatzea egingo da.
- ✓ Ikastolara autoz datozen ikasleen kasuan, pertsona bakarrarekin etorriko dira, goiz eta arratsaldean, eta ahal dela, beti pertsona bera.

6. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN ANTOLAKETA ETA SEGURTASUN NEURRIAK

Eusko Jaurlaritzak 2020-21 ikasturtean hasierarako jarduketa-protokolo osagarria eta ikastetxeeran COVID-19 kasuak agertzen direnerako jardunbideetan, VII puntuari eskolaz kanpoko jarduerari dagokien ez antolatze gomendioa egiten zuen, eskola-jardueraren kudeaketa eta garapena eta pandemiaren beraren bilakaera ikusi arte, kasuen trazabilitate hobea bermatzeko.

Foru Aldundiak Eskola Kirolari hasiera emateko baimena eman duela ikusirik eta Federazio batzuek lehiaketa hastekoa, Lauro Ikastolak gutxieneko eskaintza antolatu du eskola-zerbitzuan ezarritako segurtasun irizpideei jarraituz, irakaskuntza presentziala lehenestuz eta berori mantentzeko helburuarekin:

1. Eskola-talde egonkorak mantentzea.
2. Sarrerak-irteerak mailakatu edota desberdindu.
3. Segurtasun eta higiegi jarraibide orokorrak bete.

Gauzak horrela, orain arte antolatutako eskaintza aldatu behar izan dugu eta pandemia eta osasun-egoeraren arabera eta Jaurlaritzaren aginduen arabera egokitzen eta berrantolatzen joango gara. Ondoren azalduko dugu eraketa **abendura arte** aurreikusten dugu, orduan aztertu eta baloratuko dena, Foru Aldundiak Eskola Kirolaren lehiaketak ordura arte ez direla hasiko adierazi duela kontuan izanda.

1. KULTUR EKINTZAK: jarduera hauek aztertu ditugu eta martxan jartzeko bi zailtasun nagusi ikusi dira: ezin ditugu eskola-talde egonkorak mantendu eta jarduera hauetan bereziki materialak asko elkarbanatu eta manipulatu dira. Hau ikusita, pandemia egoera aldatu eta hobetu ezean, kultur ekintzak bertan behera geratzen dira abendura arte.
2. HIZKUNTZAK: ikastaro hauen baldintzak aztertu ditugu eta aurrera eramateko topatu dugun zailtasun nagusia da ez ditugula eskola-talde egonkorak mantentzen, besteak beste, DBH eta Batxillerreko ikasleak nahasten direlako. Hau ikusita, pandemia egoerak hobera egin eta ahalbidetzen ez duen bitartean, on-line modalitatean emango dira, abendura arte. Ikastaro hauen ordutegia atzeratu egingo da, 16:30etan hasiz, ikasleek Ikastolatik etxera heltzeko astia izan dezaten. Ikastaro hauek aurreikusitako datan hasiko dira, hau da, urriaren 5etik aurrera, bakoitzari dagokion egunean.
3. KIROLA: talde egonkorak mantentzeko asmoz, antolaketa ondokoa izango da:
 - a. Bi irteera antolatuko ditugu: Lehen hezkuntzako ikasleak 18:00etan; eta DBH-Batxillerrekoak, 17:30ean, etapen arteko nahasketarik ez egiteko.
 - b. Eskola kiroleko entrenamendu egunak, LH3tik DBH 2ra arte, eskola-talde egonkorren arabera antolatuko dira. Astero saio bakarra izango da, ordu bat eta erdikoa, aurreko ekitaldietako 45 minutuko bi saioen parekoa.

- c. Talde Federatuen kasuan, aurreikusitako taldeak mantenduko dira, baina entrenamenduak talde-egonkorren arabera azpi-taldeetan egingo dira. Entrenamendu egunak aldatu egingo dira, talde egonkorak kirolarien artean mantentzeko.
- d. Eskola Kirolean, talde egonkorretan antolatu ditzakegun kirolak dira:
 - i. Urpolo
 - ii. Futbola
 - iii. Saskibaloia
 - iv. "Multikirola" eskaintza berria, aurrekoak ez diren kirolak bateratuko dituen.
- e. Ikasle bakoitzak ekintza bat hartu ahal izango du, matrikula prozesu berezi baten bitartean (informatuko dugu).

6.1. MASKARAREN ERABILERA

Eskola Kirola (LH): ikasleek une oro maskara erabiliko dute Eskola Kirolean: geletatik irteterakoan, entrenamenduan, autobusean eta Ikastola barruko joan-etorri guztietan. Ordezko maskara bat izan dezatela gomendatzen dizuegu.

Eskola Kirola (DBH 1-2): ikasleek une oro maskara erabiliko dute: geletatik irteterakoan, autobusean eta Ikastola barruko joan-etorri guztietan. Jarduera fisikoa egiteko ere jantzita izango dute. Ordezko maskara bat izan dezatela gomendatzen dizuegu.

Kirol Federatua: ikasleek une oro maskara erabiliko dute: geletatik irteterakoan, autobusean eta Ikastola barruko joan-etorri guztietan. Jarduera fisikoa egiteko ere jantzita izango dute. Ordezko maskara bat izan dezatela gomendatzen dizuegu.

Honez gain, segurtasun distantzia fisikoa eta eskuen higiena bermatu behar dugu, ahal den une oro.

6.2. JARRAIBIDE OROKORRAK

- ✓ Gaixotasunaren sintomarik ikastolako entrenamenduetan antzeman ez gero, ikaslea ikastolako erizainarengana abiatuko da protokoloari jarraituz, eta gurasoei jakinaraziko diegu seme-alabaren bila etor daitezela. Ikasle honek ez du busa hartuko. Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.

- ✓ Familiak jokalariaen emaitza positiboa jakiten duenean edo bere inguru hurbileko batena, eskola-arduradunez gain, lehenbailehen kirol arduraduna informatu behar du (info@behekosoloaxxi.com).

Egoera berria da guztiontzat. Pandemia baten ondorioak oso larriak dira eta giza-erantzukizunez jokatu behar dugu. Arauak bete ezean, diziplina neurriak hartuko dira, bai arauok hautsi dituen jokalariaekin zein talde osoarekin ere, kirol jarduera bertan behera geldituko daitekeelarik.

Entrenamenduetan:

- ✓ Ikasleak klasetik irteterakoan, zuzenean abiatuko dira egokitutako zelaira. Ezin dira beste klasekoekin elkartu ezta pasabide eta sarreretan itxaroten egon ere. Zuzenean abiatuko dira, distantzia mantenduz.
- ✓ Entrenamendua hasi aurretik, entrenatzaileak gel hidroalkoholikoa emango die.
- ✓ Ikasle bakoitzak bere materiala ekarri behar du (ur botila, botak/zapatilak...). Debekatuta dago materiala beste inori uztea edota ematea.
- ✓ Komunera joan behar izatekotan, banan-banan joango dira, entrenatzailearen baimenarekin. Norbait barruan egonez gero, kanpoan itxaron beharko da. Ikasle bat baino gehiago itxaroten egotekotan, ilara egingo da, distantziak mantenduz.
- ✓ Komuneko iturria ez da ura edateko erabiliko. Nork bere botila ondo identifikatuta ekarriko du.
- ✓ Entrenamendu saioak distantziak zaindus eta aire librean izango dira ahal den guztietan, ariketa indibidualizatuak, fisikoagoak eta intentzitateari dagokionez mailakatuak, egokitzen joateko eta lesioak ekiditeko.

Lehiaketa egunetan:

- ✓ Partida egunetan, etxetik atera baino lehen, ikasleak tenperatura neurtuko du: $\geq 37^{\circ}\text{ko}$ tenperatura edota sintomak izanez gero, ez da partidara joango. Bere osasun-zentroarekin kontaktuan jarriko da eta, eskola-arduradunak abisatzeaz gain, entrenatzaileari eta dagokion kirol-koordinatzaileari abisatuko die, dagokion protokoloa martxan jartzeko. Senitartekoren batek ere sintomak edota positibo bat izanez gero, jokalaria ez da partidara joango eta osasun zentroarekin jarriko dira kontaktuan.
- ✓ Lehiaketa aurretik ere tenperatura neurtuko da: futboleak, zelaian sartzerakoan; eta saskibaloian, behekosoloan sartzerakoan, kamara termikoen bidez.

- ✓ Behin Lauron egonda gaixotasunaren sintomarik lehiaketa aurretik agertuz gero, jokalaria Covid-19 isolamendu gelara eramango da (Behekosoloko batzar gela) eta lehenbailehen bere bila etor daitezen senitartekoak deituko dira. Jokalaria gelan itxarongo du, maskara jantzita eta distantzia mantenduz.
- ✓ Momentuz, lehiaketa egunetan ez dira ikuslerik baimenduko Lauroko instalazioetan. Beraz, jokalaria utzi ostean Ikastolako eremuetan ez geratzea eskatzen dizuegu.

6.3. SARRERA ETA IRTEERA

- **Sarrera:**

Klasetik irteterakoan egokitutako zelaira abiatuko dira eta han entrenatzailea egongo da zain. Kirolakia ondoko lekuetatik irtengo dira:

- LH 3-4: eraikin erdian dauden eskaileretatik jaitsiko dira patiora.
- LH 5-6: aurrean LH 6ko aldetik irtengo dira, aldapa jaitsiz patiora abiatuz.
- DBH: ate nagusitik irtengo dira, pasabidetik gurutzatu eta kalean egokitutako zelaira joango dira. Futboleko kasuan, pasabidea gurutzatu ondoren, DBH 3-4ko ikasleak Behekosolotik igaroko dira kamare termikoekin tenperatura neurtzeko, futbol zelaira igo baino lehen.
- Batxiler: eraikinetik irten ate nagusitik eta LHko aldapatik abiatuko dira patiora, han itxaron behar dute danak egon arte eta entrenatzailea egon arte. Futboleko kasuan, eraikinetik irten eta futbol zelaira igoko dira, eta helderakoan tenperatu neurtuko zaie.

Behekosoloa Kiroldegian sartu behar direnak, entrenatzailearekin batera joango dira sarreran eskuak garbituz gel hidro-alkoholikoarekin. Banaka igaroko dira kamara termografikoaren aurretik eta tenperatura neurtu ostean dagokien zelaietara zuzenean joango dira gezi berdeei jarraituz.

DBH eta Batxilerreko ikasleak futbol zelaira igotzen direnean sarrera ezberdinetatik sartuko dira: Batxilerreko ikasleak, futbol zelaietan dauden aldagelako atetik; DBHkoak, futbol zelaietako ate handitik. Sarreran bi gune egongo dira jokalariei tenperatura neurtzeko eta eskuak hidrogelarekin garbitzeko.

- **Irteera:**

- Entrenamenduak amaitu eta gero, Lehen Hezkuntzako ikasleak entrenatzailearekin batera LHko aterpera abiatuko dira eta bertan geleka lerrokatuko dira, banan-banan bus-zaintzailearekin busetara joateko.
- Futbol federatuak: larrialdi atletik aterako dira, aldapatik jaitsi jantokiko atzeko partetik eta bertatik egokitutako autobusetara. Behin-betiko seinalizazioa egiten denean egokituko da.
- Saski: barruan entrenatzekotan, larrialdi atletik aterako dira. Kanpoan entrenatzekotan, jarraian autobusera.
- Urpolon irteera mailaka egingo da beti, taldeak eta adin ezberdinetako ikasleak ez nahasteko. Beti ere Behekosoloko gezi gorriei jarraituz.

6.4. SAIOEN KUDEAKETA

1. Agertokia: normaltasun berri hobetua

Egoerak eta osasun baldintzek ahalbidetzen duen bitartean, kirolak martxan egongo dira ezarritako segurtasun arauak mantenduz eta Ikastolako eskola-presentzialak lehenestuz.

2. Agertokia: agerraldiak egonez gero

Sistema semi-presentziala egin behar izanez gero, bakarrik egun horretan klase presentziala eduki badu eta entrenamendu eguna bada saioa mantenduko da.

3. Agertokia: Ikastolaren itxialdia

Ikastola presentzialki itxita egonez gero, kirol entrenamendu guztiak bertan-behera geratuko dira.

6.5. ALDAGELEN ERABILERA

Eskola kirola: ez dira aldagelak erabiliko eta jokalaria, entrenamendu egunean, Ikastolara kirol arroparekin jantzita etorriko dira.

Urpolon, entrenamendua hasi aurretik eta ondoren, aldagelak erabiliko dira arropaz aldatzeko soilik, hau da, ez dituzte aldagelako dutexak erabiliko. Igerilekuan sartu baino lehen eta ondoren, ohiko dutxa automatikotik igarotzen jarraituko dute. Jokalari bakoitzak eserleku bana izango du esleituta eta bertan eseriko da urte osoan zehar. Eserleku guztiek 1,5mko distantzia mantentzen dute beti.

Federatuak: talde bakoitzak arropaz aldatzeko eta motxilak uzteko gune bat izango du. Arropa guztia motxila edo poltsa baten barruan gordeta egon beharko da. Aldagelak arropaz aldatzeko bakarrik erabiliko dituzte, ez dutxatzeko, entrenamendu aurretik baina ez ostean (euri zaparrak egin ezean), ondoko baldintzekin:

- Futbolean:
 - Gradetan erabili ahal diren tokiak adierazita egongo dira bertan aldatzeko eta motxila uzteko, 1,5mko distantzia mantenduz.
 - Aldagelatan gehienez 6 jokalaria sartuko dira, beti maskara ipinita dutelarik eta leihoak derrigorrez irekita egon behar dira. Jokalari bakoitzak eserleku bat izango du esleituta eta bertan eseriko da urte osoan zehar. Eserleku guztiek 1,5mko distantzia mantentzen dute beti.
- Saskibaloian, aldagelatan gehienez 4 jokalaria sartuko dira, beti maskara ipinita dutelarik eta leihoak derrigorrez irekita egon behar dira. Jokalari bakoitzak eserleku bat izango du esleituta eta bertan eseriko da urte osoan zehar. Eserleku guztiek 1,5mko distantzia mantentzen dute beti.

Lehiaketa egunetan: ez da aldagelaren erabilera baimenduko. Jokalariak aldatuta etorri behar dira etxetik eta etxera itzuliko dira partida bukatu bezain laster.

6.6. ENTRENAMENDUEN KUDEAKETA

Eskola kirola: talde egonkorak bermatzeko asmoz, gela bakoitzean dauden jokalariai batuko ditugu eta astean saio bat izango dute. Entrenamendua luzatuko dugu eta 80 minutukoa izango da, aurreko planaren bi entrenamendu laburren parean. Ahal den neurrian, elkarrengandik fisikoki urrunduz eta hezitzaile berdinarekin mantenduz. Lehenengo entrenamenduetan, ahalik eta kontaktu pertsonal txikiena izatea bilatuko da, eta hasierako entrenamenduak intentsitate txikikoak izango dira.

Federatuak: talde bakoitzak astero 2-3 saio izango ditu. Foru Aldundiak emandako neurriak jarraituz, hasieran, talde bakoitzaren barruan azpitaldeak sortuko dira maila eta gelen arabera. Futbolean, talde bakoitzak zelai erdia izango du; eta Saskibaloian, kanasta bakoitzean ikasmaita berbereko jokalariai arituko dira.

Entrenamenduak kanpoan egingo dira, distantziak mantenduz, hasieran arlo fisikoari arreta berezia jarritz eta progresiboki lesioak ekiditeko.

6.7. GARBIKETA ETA DESINFEKZIOA

- ✓ Entrenatzaile bakoitzak erabilitako materiala desinfektatuko du entrenamendu aurretik eta ostean.
- ✓ Garbiketako arduradunek komunak, bankilloak eta aldagelak garbitu eta desinfektatuko dituzte jarduera amaitzerakoan.
- ✓ Zelaietako eremu desberdinak, erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuko dira.
- ✓ Kirol-aretoa: erabiltzekotan, etengabe aireztatuta egongo da, leihoak zein atearak beti irekita.

6.8. GARRAIOA

- ✓ Autobusean sartzeko ezinbestekoa da maskara ipinita izatea.
- ✓ Ikasle bakoitzak jesarleku bat du esleituta eta ezinbestean horixe erabili behar du.
- ✓ Sartzerakoan, ikasleek autobusean dagoen gel-hidroalkoholikoarekin garbituko dituzte eskuak.
- ✓ Ez dira behin-behineko bus aldaketak onartuko talde egonkorrak ahal den neurrian gordetzeko. Behin-betiko aldaketak aztertuko dira.
- ✓ Autobus enpresa guztiek desinfekzio eta aireztatze protokoloak jarraituko dituzte. Erabilera-txanda bakoitzaren ostean, autobusaren erabateko garbiketa eta aireztatzea egingo da.
- ✓ Autoz joaten diren ikasleen kasuan, pertsona bakarra etorriko da beti, eta ahal dela, beti pertsona bera.